

Herritarren parte-  
hartzeak Nafarroan  
duen egoera\_

## Jarduketan memoria 2019

# 2019KO MEMORIAREN AURKIBIDEA

<b>AURKEZPENA .....</b>	<b>4</b>
<b>1. NAFARROAKO GOBERNUAK ETA SEKTORE PUBLIKOKO ENPRESEK EGINDAKO JARDUKETAK.....</b>	<b>6</b>
<b>1.1. Gobernuko departamentuetan egindako parte-hartze jarduerak .....</b>	<b>6</b>
1.1.1. Departamentuetako kide anitzeko organoen bidez egindakoak.....	6
1.1.2. Gobernuko departamentuetan sustatutako planekin, araudiekin eta beste ekimen batzuekin lotutako parte-hartze prozesuen bidez egindakoak.....	9
<b>1.2. Herritarren Arretarako eta Partaidetzarako Zerbitzuak egindako beste jarduketa batzuk.....</b>	<b>31</b>
1.2.1. Nafarroako Gobernuaren jarduketak .....	31
1.2.2. Jarduketak toki-erakundeekin lankidetzan .....	34
1.2.3. Jarduketak eskualdeko garapen-agentziekin .....	37
1.2.4. Jarduketak GKEekin eta elkarteekin .....	38
1.2.5. Jarduketak partaidetza-prozesuak egiteko aukera ematen duten enpresekin .....	40
1.2.6. Jarduketak Nafarroako Soziologia eta Politologia Elkargoarekin .....	40
1.2.7. Beste administrazio batzuekiko harremanak .....	41
1.2.8. Parte-hartzearen gaineko sentsibilizazioa eta sustapena bultzatzeko beste jarduketa batzuk .....	42
1.2.9. Beste erakunde batzuek antolatutako ekitaldietara joatea.....	43
1.2.10. Komunikazio-ekintzak .....	43
1.2.11. Herritarren Arretarako eta Partaidetzarako Zerbitzuak herritarren parte-hartzea bultzatzera bideratutako aurrekontua .....	44
<b>2. TOKI-ERAKUNDEEK ETA BESTE GIZARTE-ERAKUNDE BATZUEK EGINDAKO JARDUKETAK.....</b>	<b>45</b>
<b>2.1. Toki-erakundeek sustatutako proiektuak.....</b>	<b>45</b>
<b>2.2. Beste gizarte-erakunde batzuek egindako proiektuak.....</b>	<b>53</b>
<b>3. NAFARROAKO PARLAMENTUAN ERREGISTRATUTAKO HERRITARREN PARTAIDETZA-EKIMENAK.....</b>	<b>57</b>
<b>3.1. Parlamentuan aurkeztutako herritarren eskaerak.....</b>	<b>57</b>
<b>4. NAFARROAKO GOBERNUAREN JARDUKETEN AURREIKUSPENA 2020RAKO.....</b>	<b>58</b>

<b>4.1. Gobernuko departamentuek 2020rako aurreikusitako planak, araudiak eta beste ekimen batzuk .....</b>	<b>58</b>
4.1.1. Planak .....	58
4.1.2. Araudiak.....	59
4.1.3. Beste partaidetza-jarduera boluntario batzuk.....	66
<b>4.2. Herritarren Partaidetzako Atalak aurreikusitako beste ekintza garrantzitsu batzuk.....</b>	<b>66</b>
<b>5. ERANSKINA .....</b>	<b>67</b>

## AURKEZPENA

2016tik aitzina, lau urtez jarraian, Gobernu Irekiaren eta Herritarrentzako Arretaren Zerbitzuak hau bezalako jarduketek memoria bat aurkeztu du, Nafarroan Herritarren Parte-hartzea Sustatzeko

2017-2019ko Planaren 11.2 helburuan ezarritako Gobernu-konpromisoa betetzeko. Nafarroako Parte-hartze Demokratikoari buruzko martxoaren 22ko 12/2019 Foru Legean ere xedatzen da zeregin hori; izan ere, lege horren 45. artikuluan adierazten denez, herritarren parte-hartzean espezializatutako unitateari dagokio Nafarroako Foru Komunitateko partaidetza-prozesuei buruzko memoria bat egitea.

Gobernuan, enpresa publikoetan, toki-erakundeetan eta Nafarroako beste gizarte-erakunde batzuetan 2019. urtean egindako jarduketei buruzko informazioa aurkezten du memoriak. Horrez gain, Nafarroako Gobernuak partaidetza-arloan 2020an aurreikusten dituen jarduketek – departamentu batzuetako plan eta araudi garrantzitsuenak onartzearekin lotuta daude – aitzinamendu bat ere jasotzen du memoriak, bai eta Gobernu Irekiaren eta Herritarrentzako Arretaren Zerbitzuak planifikatutako beste jarduketa batzuk ere.

Nafarroako Gobernuari buruzko informazioa, bestalde, bi ataletan egituratuta dago: lehen atalean, departamentuek gauzatutako partaidetza-jarduerak jasotzen dira; bigarrenean, berriz, Herritarren Partaidetzarako Atalari dagozkionak.

Gobernuko departamentuek emandako informazioa hiru azpi-ataletan antolatuta dago:

**Lehenak** departamentuetan herritarren parte-hartzearekin lotuta dauden kide anitzeko organoen jarduera aipatzen du. Informazio hori organo horietako idazkaritzetako funtzionarioek emandakoa da. Argi utzi behar da ez dela informaziorik jaso lurraldean dauden beste kide anitzeko lurralde-organoen batzuei buruz; hau da, oinarrizko osasun-eremuekin, eskola-kontseiluekin, udal hezkuntza-kontseiluekin, gizarte-zerbitzuen esparruko egoitzetako partaidetza-kontseiluekin, gizarte-segurtasunarekin eta abarrekin lotutako kide anitzeko zenbait organori buruz.

**Bigarrenak** Nafarroako Gobernuak 2019an sustatutako planekin, araudiarekin eta beste partaidetza-ekimen batzuekin lotutako parte-hartzearen emaitza nagusiak jasotzen ditu. Informazioa Gobernu Irekiaren eta Herritarrentzako Arretaren Zerbitzuak landu du, departamentuek emandako informazioan oinarrituta.

**Hirugarrenak** Gobernuak modu boluntarioan gauzatu dituen beste ekimen batzuk jasotzen ditu, araudian ez baita horretarako eskakizunik ageri.

Toki-erakundeek eta beste gizarte-erakunde batzuek sustatutako parte-hartzeari buruzko informazioa onlineko inprimaki baten bidez lortu da, eta ekimenak gauzatu dituzten erakunde publiko eta pribatuek eman dute zuzenean, Herritarren Partaidetzarako Atalak dagokion berrikuspenera egin ondoren.

Litekeena da informazioa osoa ez izatea Nafarroako enpresa publikoetan, toki-erakundeetan eta hirugarren sektoreko beste erakunde batzuetan 2019. urtean gauzatutako partaidetza-ekimenekin lotutako blokean; izan ere, memoria honen edukirako informazioa ez dute bidali beren jarduerak aipatzeko aukera dutela zekiten erakunde sustatzaile guztiek, nahi izan dutenek baizik.

Nabarmendu nahi dugu 2019. urteko maiatzean egin zirela Nafarroako Parlamenturako Foru Hauteskuendak, eta horrek aldaketa eragin duela Nafarroako Gobernuaren antolakuntza-egituran. Hala, memoria hau egitea dagokion parte-hartzearen unitate espezializatua

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuaren mende zegoen urrira arte, eta urritik aitzina, berriz, urriaren 30eko 259/2019 Foru Dekretua onartzearekin batera, Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuaren mende dago; zehazki, Lehendakaritzako eta Gobernu Irekiko Zuzendaritzaren mende.

Halaber, azpimarratu nahi dugu 2019. urtea, aurreikusten genuen bezala, ezohikoa izan dela aipatutako foru-hauteskundeak direla eta; horren ondorioz, aurreko urteetan baino askoz plan eta araudi berri gutxiago egin dira.

Bukatzeko, lerro hauen bidez eskerrak eman nahi dizkiegu Gobernuko departamentuei, enpresa publikoei, toki-erakundeei eta gizarte-erakundeei memoria honetarako informazioa bidaltzeagatik eta, batez ere, parte-hartzea esku hartzeko tresna gisa sustatzeagatik eta bereganatzeagatik, gizarte demokratikoagoa lortzeko ekarpena egiteagatik eta etorkizuneko jarduketa publikoei eraginkortasun handiagoa ematen lagunduko duten zilegitasun handiagoko erabakiak hartzeagatik.

# 1. NAFARROAKO GOBERNUAK ETA SEKTORE PUBLIKOKO ENPRESEK EGINDAKO JARDUKETAK

## 1.1. Gobernuko departamentuetan egindako parte-hartze jarduerak

### 1.1.1. Departamentuetako kide anitzeko organoen bidez egindakoak

#### 2019. urtean kide anitzeko organoek garatutako jardueraren laburpena

Kide anitzeko organoetako idazkariak emandako datuen arabera, 2019. urtean **kide anitzeko 23 organoren 43 bilera** egin ziren guztira, honela banatuta:


Kide anitzeko organoa	2019. urtean egindako bilera kopurua
Nafarroako Turismo Kontseilua	-
Nafarroako Merkataritza Kontseilua	1
Nafarroako Kontsumoaren Kontseilua	Ez da bildu
Nafarroako Garraioen Kontseilua	-
Nafarroako Taxien Kontseilua	-
Nafarroako Kooperatiben Kontseilua	2
Nafarroako Lan Autonomoaren Kontseilua	1
Artisautzaren Aholku Kontseilua	1
Nafarroako Adingabearen Kontseilua	3
Nafarroako Gizarte Ongizatearen Kontseilua	3
Nafarroako Garapenerako Lankidetzaren Kontseilua	Ez da bildu
Nafarroako Adinekoen Kontseilua	2
Nafarroako Desgaitasunaren Kontseilua	-
Etxebizitza Kontseilua	1
Nafarroako Ekonomia eta Gizarte Kontseilua	1
Nafarroako Estatistika Kontseilua	1
Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Aholku Kontseilua	1
Irisgarritasun Unibertsalaren eta Ezgaitasunen bat duten Pertsonen Aukera Berdintasunaren Sustapenerako Kontseilua	-
Nafarroako Jokoaren Kontseilua	-
Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio eta haren erakunde autonomoetako lanpostuetan desgaitasuna duten pertsonen sarrera sustatzeko batzorde mistoa	1
Nafarroako Herritarren Segurtasunerako Kontseilua	Ez da bildu

Kide anitzeko organoa	2019. urtean egindako bilera kopurua
Euskararen Nafar Kontseilua	2
Nafarroako Berdintasunerako Kontseilua	-
Nafarroako LGTBI+ Kontseilua	-
Memoria Historikoaren arloko Koordinazio Batzorde Teknikoa	-
Nafarroako Lanbide Heziketaren Kontseilua	2
Nafarroako Eskola Kontseilua	-
Nafarroako Foru Komunitateko Ikasleen Gurasoen Mahaia	-
Nafarroako Eskolatze Batzorde Nagusia	7
Nafarroako Osasunaren Kontseilua	-
Nafarroako Farmazia Laguntzarako Batzordea	-
Nafarroako Lan Osasunaren Kontseilua	-
Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseilua	2
Nafarroako Kirolaren Kontseilua	1
Gazteen Informazio Zerbitzuen Sarearen Batzorde Koordinatzailea	Ez da bildu
Basogintzako Aholkularitza Kontseilua	1
Ehizako Aholku Batzordea	1
Arrantzako Aholku Batzordea	-
Nekazaritzako Elikagaien Artisautza Batzordea	Ez da bildu
Lurralde Politikaren Gizarte Kontseilua	2
Nafarroako Ingurumen Kontseilua	5
Urbasa eta Andiako Natur Parkearen Patronatua	1
Bertizko Jaurerriko Natur Parkeko Zuzendaritza Batzordea	1
Bardeako Aholku Kontseilua	-
<b>Guztizkoa</b>	<b>43</b>

Informazioa bidali zuten organoetan 706 pertsonak parte hartu zuten, guztira, eta 970 pertsona zeuden deituta, guztira; horrenbestez, deitutako guztien % 72,78 bertaratu ziren. Bilera bakoitzean, batez beste, % 73,02k parte hartu zuen.


Gainera, egin ziren 43 bileretatik, % 27,91 kontsultarako egin ziren, % 53,49 gogoetarako eta % 18,60 informatzeko.

### Egindako saioen kopurua eta ehunekoa izaeraren arabera



231 proposamen aurkeztu ziren, guztira, eta horietako % 74,895 onartu eta % 23,81 baztertu ziren; % 1,30, berriz, aztertzeko daude.

### Aurkeztutako proposamenen kopurua eta ehunekoa





### 1.1.2. Gobernuko departamentuetan sustatutako planekin, araudiekin eta beste ekimen batzuekin lotutako parte-hartze prozesuen bidez egindakoak

2019an, Gobernuko departamentuek planak, araudiak eta beste ekimen batzuk onartzearekin lotutako herritarren parte-hartzea sustatzen jarraitu dute, Gobernu Irekiaren eta Herritarrentzako Arretaren Zerbitzuaren laguntzarekin.

#### 1.1.2.1. PLANAK ETA/EDO ESTRATEGIAK

Nafarroako Parte-hartze Demokratikoari buruzko martxoaren 22ko 12/2019 Foru Legea betetzeak eragiten dien planekin lotutako parte-hartze prozesuetatik, **Nafarroako Gobernuak 2019rako aurreikusita zituen 6 prozesuetako** 4 soilik gauzatu dira, Berdintasun Plana eta Suhiltzaileen Plan Zuzentzailea ez baitira hasi.

Plan hauek gauzatu dira urtean zehar:

LGTBI+ Pertsonen Berdintasun Sozialari buruzko ekainaren 19ko 8/2017 Foru Legea garatzeko 2019-2022ko Ekintza Plana

Nafarroako Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa


Nafarroako Desgaitasun Plana

Nafarroako Lurraldeari buruzko Informazio Sistema – SITNAren 2020-2023 eperako Plan Estrategikoa

Horrenbestez, jarraian aurkezten dugun informazioa Nafarroako Gobernuko departamentuetan 2019. urtean gauzatutako 4 parte-hartze prozesuei buruzkoa da:

Departamentua	Kop.
Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanak	1
Eskubide sozialak	2
Lehendakaritza, Funtzio Publiko, Barne eta Justizia	1
GUZTIRA	4

#### Departamentuak aurkeztutako estrategien eta planen kopuruas



Jarraian, garatutako prozesuen zerrenda osoa dago, eta jendaurrean jarri diren eta/edo aurrez aurreko partaidetza izan duten adierazi da:

Departamentua	Planaren/Estrategiaren izena	Jendaurrean Jartzea	Aurrez Aurreko Partaidetza
<b>Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanak</b>	LGTBI+ Pertsonen Berdintasun Sozialari buruzko ekainaren 19ko 8/2017 Foru Legea garatzeko 2019-2022ko Ekintza Plana	Bai	Bai
<b>Eskubide sozialak</b>	Nafarroako Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa	Bai	Bai
	Nafarroako Desgaitasun Plana	Bai	Bai
<b>Lehendakaritza, Funtzio Publiko, Barne eta Justizia</b>	Nafarroako Lurraldeari buruzko Informazio Sistema – SITNAren 2020-2023 eperako Plan Estrategikoa	Bai	Ez
<b>Guztizkoa</b>	<b>4</b>	<b>4</b>	<b>3</b>

#### Planekin lotutako prozesuen kalitatea

Eskuratutako informazioarekin, Gobernu Irekiaren eta Herritarrentzako Arretaren Zerbitzuak kalitatearen arabera sailkatu ditu prozesuak. Taula honetan ikusten den bezala, kalitate hauek esleitu zaizkie:

Departamentua	Planaren/Estrategiaren izena	Planaren tipologia
<b>Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanak</b>	LGTBI+ Pertsonen Berdintasun Sozialari buruzko ekainaren 19ko 8/2017 Foru Legea garatzeko 2019-2022ko Ekintza Plana	3
<b>Eskubide sozialak</b>	Nafarroako Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa	2
	Nafarroako Desgaitasun Plana	3
<b>Lehendakaritza, Funtzio Publiko, Barne eta Justizia</b>	Nafarroako Lurraldeari buruzko Informazio Sistema – SITNAren 2020-2023 eperako Plan Estrategikoa	1
<b>Guztizkoa</b>	<b>4</b>	

Informazio horretan oinarrituta, honako hau ondoriozta daiteke informazioa dugun prozesuei buruz:

Prozesu bat (% 25) 1. motakoa izan da (**kalitate baxua**): informazio- eta kontsulta-jarduerak baino ez dituzte egin.

Beste prozesu bat (% 25) 2. motakoa izan da (**kalitate ertaina**): informazio- eta kontsulta-jarduerak egin dituzte, bai eta aurrez aurreko jardueraren bat ere.

Gainerako 2 prozesuak (% 50) 3. motakoak izan dira (**kalitate handia**): informazioaz eta kontsultaz gain, jendaurreko gogoeta publikoa ere gehitu dute.

### Prozesuetako parte-hartzaileak


Planen **zirriborroak egiten 230 pertsonak** esku hartu dute, eta horietatik:

32 (% 13,91) Gobernuak izan dira

198 (% 86,09), berriz, Gobernuz kanpokoak

Behin **eztabaidarako zirriborroa** idatzita zegoenean, **347** pertsonak parte hartu dute, guztira, antolatu diren jardueretako batean.

Parte-hartzaile guztietatik % **24 gizonak izan dira, eta % 76 emakumeak; emakumeak gutxiago izan dira Nafarroako Lurraldeari buruzko Informazio Sistema – SITNAREN 2020-2023 eperako Plan Estrategikoan, eta gehiago gainerakoetan.**



Taulan, kopuru horiek departamentuz departamentu banatuta zehaztu dira:

DEPARTAMENTUA	Zirriborroa prestatzea		Lehen saioa: aurkezpena		Gogoetarako bilerak		Parte-hartzaileen kopurua, guztira
	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	
Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanak	52	149					201
Eskubide sozialak			24	97	44	182	347
Lehendakaritza, Funtzio Publiko, Barne eta Justizia	16	13					29
GUZTIRA	68	162	24	97	44	182	
<b>GUZTIRA</b>	<b>230</b>		<b>121</b>		<b>226</b>		<b>577</b>


### Jasotako eta onartutako proposamenak

Departamentuek emandako informazioan oinarrituta, ondorioztatu da **planetako partaidetza-prozesuekin lotutako 131 proposamen** jaso direla, guztira, eta horietatik:

73 (% 55,73) guztiz edo partzialki onartu dira

58 (% 44,27) baztertu egin dira

### Proposamenen emaitza




Prozesuen **kalitate-tipologiari** dagokionez, 131 proposamenetatik:

**4 proposamen** (% 0,06) **1. motako prozesuetan** egin dira

**Proposamen 1** (% 84,44) **2. motako prozesuetan** egin da

**126 proposamen** (% 15,48) **3. motako prozesuetan** egin dira

### Proposamen kopurua prozesu motaren arabera



Datu horietatik ondoriozta daiteke **kalitate handieneko partaidetza-prozesuek (3. motakoak) egiten dituztela ekarpen handienak** eta laguntzen dutela gehien erabakien kalitate demokratikoa eta planifikazioa hobetzen.

Jarraian, departamentuz departamentu zehaztu dira egindako eta onartutako proposamenak:

Departamentua	Gutzikoa	Onartuak	Baztertuak	Onartuen %
Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanak	61	24	37	39,34
Eskubide Sozialak	66	48	18	72,73
Lehendakaritza, Funtzio Publiko, Barne eta Justizia	4	1	3	25,00
<b>Gutzikoa</b>	<b>131</b>	<b>73</b>	<b>58</b>	<b>55,73</b>

#### Ebaluazioari eta gardentasunari buruzko ohar batzuk

Prozesuak sustatu dituzten departamentuek haien **ebaluazio** positiboa egin dute, oro har. **Gardentasunari** dagokionez, honako idazki hauek prestatu dira, eta Gobernu Irekiaren Atarian argitaratu: kontsultarako eta parte-hartze publikorako aurkeztutako zirriborro teknikoaren dibulgazio-dokumentu bat, bileren aktekin; herritarren proposamenak jaso dituen dokumentu bat, bai eta proposamen horiek onartzeko edo baztertzeko departamentuaren erabakia eta prozesuaren amaierako txostena ere.

#### Prozesuetako bakoitzari buruzko informazioa:

##### ✓ **LGTBI+ Pertsonen Berdintasun Sozialari buruzko ekainaren 19ko 8/2017 Foru Legea garatzeko 2019-2022ko Ekintza Plana**

LGTBI+ PERTSONEN BERDINTASUN SOZIALARI BURUZKO EKAINAREN 19KO 8/2017 FORU LEGEA onetsi zenean sumatzen hasia zen jada LGTBI+ politikak garatzearen aldeko joera publikoa, eta onespren horrek dibertsitate sexual eta afektiboaren aintzatespen sozial eta politikoko sakonagoa ekarri zuen ekitate eta begirune erabatekoan; izan ere, legearen asmoa da ezartzea eta arautzea LGTBI+ pertsonen egiazko eta benetako berdintasuna eta eskubideak osoki bermatzeko printzipioak eta neurriak, sexu-orientazioagatik, genero-adierazpenagatik eta sexu-edo -genero nortasunagatik etor daitekeen bazterkeria ororen kontra, Nafarroako Gobernuak eta toki-erakundeek eskumena duten esparru guztietan.

Lege horrek erronka handia zekarren garatu beharreko agendan, era esplizituan ezartzen duelako premiazkoa dela ekintza-plan bat prestatzea legea onetsi eta urtebeteko epean.

Horretarako, Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren bitartez, Nafarroako Foru Komunitateko LGTBI+ pertsonen berdintasun sozialaren egoeraren diagnostikoa egin zuen eta oinarrien dokumentua prestatu zuen, ekintza-planaren zirriborroa ekarri duena. Bi agiriak partaidetza bidez prestatu ziren, bai arlo horretan diharduten gizarte-ehun, erakunde eta elkarteekin batera, bai Nafarroako Gobernuko departamentuekin batera, eta, oro har, herritarrekin batera.

Partaidetzarako, jendaurrean jarri zen LGTBI+ Pertsonen Berdintasun Sozialari buruzko ekainaren 19ko 8/2017 Foru Legearen Ekintza Planerako zirriborroaren dokumentua; horrela bete zen seigarren xedapen gehigarria, Prozedurari buruzko VI. kapitulua, pertsona gay, lesbiana, bisexual, transexual, transgenero eta intersexualen benetako berdintasun gauzatua bermatzeko neurriei buruzko IV. tituluko.

Esteka: <https://gobiernoabierto.navarra.es/eu/partaidetza/prozesuak/lgtbi-pertsonen-berdintasun-sozialari-buruzko-82017-foru-legearen-ekintza>

### ✓ **Nafarroako Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa**

Nafarroako Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa partaidetza-plangintza prozesu oparo baten bukaera da; bertan, plan eta dokumentu estrategikoak sortu eta onetsi ahal izan dira (horietako batzuk oraindik prestatzen ari dira). Gure gizarte-zerbitzuen plangintza estrategikoari dagozkion edukiak jasotzen dituzte, hala nola:

- Nafarroako Foru Komunitatean familia, haurtzarora eta nerabezarora laguntzeko II. Plan Integrala 2017-2023 (PFIA).
- Nafarroako Gizarteratze Plan Estrategikoa (2018-2021) (PEI).
- Mendekotasunaren Plan operatiboa (POD).
- Desgaitasun Plana 2019-2022 (PD).
- Nafarroako Gizarte Zerbitzuen Oinarrizko Laguntza berrantolatzeko proiektua (PAP).

Erabaki da, arau gisa, eduki horiek berriro ez jartzea dokumentu honetan; izan ere, gizarte-zerbitzuen Nafarroako strategiaren elementu orokorrak edo nuklearrak besterik ez dira sartu, eta aipatutako testuetan begiratzera igorriko da horietako bakoitzari dagozkion alderdi partzialak edo berariazkoak ikusteko (siglak aipatuko dira eta, behar denean, orriak).

Horrenbestez, ulertu behar da Nafarroako Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa (2019-2023) dokumentu honen eta aipatutako bosten batura dela (gizarte-zerbitzuei dagokienez). Plan horren helburua da modu labur, bisual, eskuragarri eta praktikoan borobiltzea aipatutako bost instrumentuetan islatutako eta erabakitako azterketa eta plangintzako lan zabala.

Aipatutako dokumentu horietatik elikatu da plan hori prestatzeko prozesua, bai eta beste ebaluazio-, azterketa-, ikerketa-, gogoeta- eta eztabaida-prozesu batzuetatik ere. Azken horien artean, aipa ditzagun honako hauekin lotura dutenak: aurreko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoarekin (2008-2012); gizarte-zerbitzuen zorroarekin, maparekin, eskariarekin eta eskaintzarekin, eta Nafarroako mendekotasunarekin. Horiei, gainera, Informazio sistema integratuarekin, itun sozialarekin edo Nafarroako gizarte-zerbitzuen kudeaketa zuzenarekin zerikusia dutenak (guztiak ere Errealitate Sozialaren Behatokian egin eta jasotakoak, oro har) gehitu dakizkieke, besteak beste, bai eta beste plan sektorial eta zeharkako plan batzuk ere.

Esteka: <https://gobiernoabierto.navarra.es/eu/partaidetza/prozesuak/nafarroako-gizarte-zerbitzuen-plan-estrategikoa-2019-2023>

### ✓ **Nafarroako Desgaitasun Plana**

Eskubide Sozialetako Departamentuak Nafarroako 2019-2022 Desgaitasun Plana prestatu du, desgaitasunak dituzten pertsonen beharrei laguntzeko eta arreta-eredu prebentiboan eta integrarean aitzina egiteko. Eredu hori pertsonen bizi-kalitatea hobetzera bideratuko da, haien autonomia pertsonala sustatuz, bai eta bizimodu independente bat mugatzen duten prozesuak saihestera edo atzeratzera ere.

Planak nazioarteko gomendio eta adostasun guztiak jasotzen ditu, bereziki Desgaitasunari buruzko Europako Estrategia 2010-2020 eta Desgaitasunari buruzko Espainiako Estrategia 2012-2020, bai eta Pertsona Desgaituei buruzko Nazioarteko Konbentzioan onartutako konpromisoak ere.

Plan berria funtsezko alderdi hauetan oinarritzen da:

- Giza eskubideen eta pertsonen duintasunaren babesa.
- Bizi-zikloko etapa bakoitzean pertsonak dituzten premietan oinarritutako arreta.
- Desgaitasuna duten pertsonen autonomia sustatzea.
- Irisgarritasun unibertsala.
- Gizarteratzea.

Planak Nafarroako desgaitasunaren arretarako sistema guztia hartu nahi du barnean, eta ez soilik erantzukizun publikoko politiken sistema. Horregatik, ekimen pribatuaren eta gizarte-ekimenaren ekarpena eta hausnarketa bilatu dira, eta haien berariazko zeregina eta maila publikoarekiko osagarritasuna aintzat hartu dira.

Planaren asmoa adostasunak eta sinergiak biltzea da, bai Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozialetako Departamentuaren edo beste departamentuen plan eta ekintzekin, bai toki-erakundeen eta gizarte-eragileen asmoekin ere, esparru soziosanitarioan, batez ere.

Genero-ikuspegia plangintza-prozesu osoan hartu behar da kontuan; hori dela eta, datu-azterketaren fasean ez ezik, aurreikusten diren lerro, helburu eta neurrietan ere erreparatu zaio arlo horri. Desgaitasunaren arloan emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak eragiten dituzten faktoreak identifikatu ondoren, bi sexuek esparru horretan dituzten baldintzen eta bizi-egoeren hobekuntza proposatu da, eta, horren ondorioz, gizarte berdinago bat bultzatzea.

Halaber, plangintza-prozesu osoan, kontuan hartu da desgaitasunaren arloan lurraldeen artean egon daitezkeen desberdintasunak identifikatzeko beharra, neurri zuzentzaileak diseinatu ahal izateko.

Esteka: <https://gobiernoabierto.navarra.es/es/participacion/procesos/plan-discapacidad-navarra-2019-2022>

#### ✓ **Nafarroako Lurraldeari buruzko Informazio Sistema – SITNAren 2020-2023 eperako Plan Estrategikoa**

SITNAren 2020-2023rako Plan Estrategikoak parametro hauen arabera bideratu nahi du Sistema:

- Datu eta zerbitzu irekiak azpiegitura gisa.
- Elkarreragingarritasuna unibertsalizazio eta sarbide-berme gisa.
- «Sistema» zerbitzu publiko gisa.
- Gobernantza egokiaren eta gardentasunaren ardatz eta euskarri izatea Nafarroako administrazio publikoetan.
- Herritarrak izatea helburu, lehentasuna emanaz larrialdi zerbitzuei, ekintzailletza babesteari eta lehiakortasuna hobetzeari.
- Baliabideak «zerbitzuak ematera» egokitzea.

Horretarako, planteatzen da 21 «helburu», 55 «ildo estrategiko» eta 208 «ekintza» dituen bilduma oso bat, hurrengo lau urteetan garatu beharrekoa, lagunduko duena Nafarroako Azpiegitura Geospaziala sortzen, barne hartuko dituen administrazio publiko eta atxikitako erakunde guztiak, eta gai izanen dena datuak, produktuak eta zerbitzuak modu irekian eta doan eskaintzeko.

Era berean, eskaintzaren osotasuna bermatzeko, jasotzen da oinarritzotzat jo beharreko datu multzoen bilduma bat (lehendik dauden 1.300 geruzez gain). Eskaintzaren zabalpen hori ere jarri da herritarren eskura; hau da, Nafarroako Foru Komunitateko informazio geospazialerako planik hoberena eraikitzeke prozesu honetan parte hartzen dutenen eskura.

Hauek izan dira gogoeta bermatzeko aurreikusi diren jarduerak: iradokizunen bidezko parte-hartzea, galderak eta interesdunek proposatutako Administrazioarekiko bilerak. Bilera-proposamen horiek Nafarroako Gobernuaren Gobernu Irekiaren Atariaren bidez egin dira, jendaurreko informazio-aldian.

Esteka: <https://gobiernoabierto.navarra.es/eu/partaidetza/prozesuak/sitnaren-plan-estrategikoa-2020-2023>


### 1.1.2.2. Araudiak

Taula honetan, Nafarroako Gobernuak 2019an izapidetutako araudiei buruzko informazioa jaso da, bai eta haiek onartzeko prozesuetan erabili diren herritarren partaidetza-mekanismoei (aldez aurreko kontsultak eta jendaurrean jartzea) buruzkoa ere.

Departamentua	Partaidetza-mekanismoa	Kop.
<b>Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentua</b>	Aldez aurreko kontsulta publikoa	2
	Jendaurrean jartzea	0
		<b>2</b>
<b>Eskubide Sozietako Departamentua</b>	Aldez aurreko kontsulta publikoa	7
	Jendaurrean jartzea	5
		<b>12</b>
<b>Garapen Ekonomikorako Departamentua</b>	Aldez aurreko kontsulta publikoa	4
	Jendaurrean jartzea	5
		<b>9</b>
<b>Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentua</b>	Aldez aurreko kontsulta publikoa	10
	Jendaurrean jartzea	22
		<b>32</b>
<b>Hezkuntza Departamentua</b>	Aldez aurreko kontsulta publikoa	6
	Jendaurrean jartzea	15
		<b>21</b>
<b>Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentua</b>	Aldez aurreko kontsulta publikoa	0
	Jendaurrean jartzea	1
		<b>1</b>
<b>Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentua</b>	Aldez aurreko kontsulta publikoa	4
	Jendaurrean jartzea	4
		<b>8</b>
<b>Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentua</b>	Aldez aurreko kontsulta publikoa	2
	Jendaurrean jartzea	2
		<b>4</b>
<b>Osasun Departamentua</b>	Aldez aurreko kontsulta publikoa	5
	Jendaurrean jartzea	5
		<b>10</b>
<b>Guztizkoa</b>		<b>98</b>



Guztira, 98 prozesu egin dira: **aldez aurreko jendaurreko 40 kontsulta eta arauak jendaurrean jartzeko 59 ekintza.**



Agerikoa denez, ez datoz bat 2019. urtean aldez aurretik egin ziren kontsulta publikoen datuak eta jendaurrean jarri ziren prozesuen datuak. Hau da alde horren zergatia: 2018an aldez aurreko kontsulta egin zitzaizen araudi batzuk 2019an jarri dira jendaurrean, behin araudia idatzi eta gero; era berean, 2019an egindako aldez aurreko kontsulta batzuen jendaurrean jartzea araua idazten denean (2020an edo hurrengo urteetan) eginen da.

### 1.1.2.3. PARTE HARTZEKO BESTE EKIMEN BOLUNTARIO BATZUK

Jarraian aipatzen diren partaidetza-ekimenak ez dira egin araudia betetzeko; beraz, izaera boluntarioa dute.

Hasiera batean, 12 ekimen boluntario identifikatu dira. Alabaina, horietako batzuk oraindik ez dira hasi edo ez dira amaitu; dena dela, 2018an onartutako zerrendan jaso ez ziren batzuk ere gauzatu dira.

Honako ekimen hauek gauzatu dira:

#### Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentua

- Lerin Adeitsua
- Burgi Adeitsua
- Nafarroako Azpiegitura Berdearen Estrategia
- Nafarroako Baso Agenda
- 2030eko Nafarroako Uraren Esparru Integratuaren Estrategia
- Nafarroan Ekonomia Zirkularra Garatzeko Agenda

#### Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentua

- "Kirol-baloreen" saria herri-bozketaz aukeratzea.
- Partaidetza bidezko aurrekontuak.

**Garapen Ekonomikorako Departamentua**

- Nafarroako Nekazaritzako Elikagaien Kooperatibak Integratzeko Esparru Estrategikoa (2018-2020)
- Turismo arloko Prestakuntza Plana

**Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentua**

- Nafarroako Tokiko Erakundeetako Emakume Politikarien Foroa
- NOSOTRAS-EMAKUMEON ahalduntze feministaren programa
- Nafarroako Berdintasunerako Kontseiluarekiko Programa
- Indarkeriaren Biktimak diren Emakumeentzat Harrera Baliabideen Eredu Berriaren proposamen bat prestatzea
- Enpresa eta Erakundeetan Berdintasun Printzipioa Ezartzeko Proiektua

**LANDA-GARAPENKO, INGURUMENKO ETA TOKI-ADMINISTRAZIOKO DEPARTAMENTUA****✓ Lerin Adeitsua eta Burgi Adeitsua**

Lerin Adeitsua eta Burgi Adeitsua hiri-diagnostikoko bi proiektu dira. Proiektu horietan udalerrri bakoitzeko biztanleen laguntza bilatu da, udalerrriaren hiri-diseinuarekin lotutako beharrak adineko pertsonen ikuspegitik detektatzeko. Helburu orokorra jarduketa-lerro batzuk definitzea da, espazio publikoak herrietan eta hirietan gertatzen ari diren aldaketa demografikoetara moldatzeko.

Lerin Adeitsua eta Burgi Adeitsua programak 2017tik aitzina Nafarroako Gobernua sustatzen ari den "Zahartze Aktibo eta Osasungarrirako 2017-2022 Estrategia" ekimenarekin lotuta daude. Estrategia horren xedea da Nafarroako biztanleen zahartzea ahalik eta bizitza-kaliterik onenarekin egitea, adinekoen autonomia, independentzia eta aktibitatea bilatuz.

2018-2019 Estrategiaren Ekintza Planaren baitan, Ingurumeneko eta Lurraldearen Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiak 2018an esperientzia pilotu bat gauzatu zuen Corellan, "Hiriak eta herriak, auzo lagunkoiak" berariazko alorrari erantzuna emateko. Corella Adeitsuaren emaitza onaren ondoren, Corellak ez bezalako gizarte-errealitatea eta hiri-testuingurua dituzten beste bi udalerritara zabaldu zen esperientzia 2019an, eta horrek ikuspegi berriak eta beste erronka batzuk gehitu zizkion hiri-diseinuan adineko pertsonen ikuspegia txertatzeko helburuari. 2019. urtean Lerinen eta Burgin egin da lan; lehenean 1000-1500 biztanle bizi dira, eta Burgin, berriz, 500 baino gutxiago.

**Lerin Adeitsua**

Lerin Adeitsua proiektua hiru bloke bereizitan (aldez aurreko ekintzak, partaidetza-prozesua eta lerro estrategikoen definizioa) egituratuta dago, eta 2019ko apiriletik abuztura garatu zen.

Partaidetza-prozesuari dagokion zatia herritarrei irekitako hiru saioaren bitartez gauzatu zen, bi ordu eta erdiko saiotan. Bilkurak diseinatzean, profil guztietako pertsonentzat jostagarria eta erakargarria izateko ahalegina egin zen; hala, hiri-diagnostikorako ideiak eta datuak emanaz parte hartzeko aukera eskaintzeaz gain, saioetan izandako partaidetza bera ere herritarrentzat gogoeta-ekintza interesgarria izatea bilatzen zen. Saioak zentro zibikoan eta udaletxearen arkupeetan egin ziren, proiektua kalera ateratzeko eta parte-hartzea gertukoagoa egiteko asmoz.

Ateratako ondorioekin, lekuan bertan beste saio bat egin zen, iritziak alderatzeko, landa-laneko beste jardunaldi baten bidez.

Saioaren izena	Gizonak	Emakumeak	Guztizkoa
Lerin ezagutuz	5	9	14
Azterketa xehatua	4	6	10
Adituen batzordea eta ondorioak	5	7	12
<b>Guztizkoa</b>	<b>14</b>	<b>22</b>	<b>36</b>



### Burgi Adeitsua


Burgin garatutako prozesua Lerinen egindakoaren antzekoa izan zen; alabaina, mendialdeko herri bat izanik, haren hiri-egiturak desnibel handiak ditu (ibaiarekiko zutak diren kaleak, esaterako, oso aldapatsuak dira). Gainera, Burgin 130en bat pertsona bizi dira etengabe, nahiz eta 200 egon errolatuta; kopuru hori handitu egiten da udan, lanagatik edo ikasketengatik Iruñera bizitzera joan diren familiak herrira itzultzen direnean. Alderdi horiek kontuan hartu dira prozesu guztian.

Burgi Adeitsua proiektua hiru bloke bereizitan (alde aurreko ekintzak, partaidetza-prozesua eta lerro estrategikoen definizioa) egituratuta dago, eta 2019ko apiriletik abuztura garatu zen, Lerin Adeitsua proiektua bezala.

Kasu honetan, herriarentzat esanguratsuak diren espazio publikoetan egin ziren saioak: plazan, 4 zuhaitzetan eta Ugaldearen Pasealekuan. Espazio publikoan saioen garapena ikusiz lan egiteak (gela batean sartu beharrik gabe) aldatu egiten du espazioen erabilera aldi baterako; horregatik, interesgarria da horrelako proiektuak egiteko.

Ateratako ondorioekin, lekuan bertan beste saio bat egin zen, iritziak alderatzeko, landa-laneko beste jardunaldi baten bidez.

Saioaren izena	Gizonak	Emakumeak	Guztizkoa
Burgi ezagutuz	3	18	21
Azterketa xehatua	0	16	16
Adituen batzordea eta ondorioak	0	14	14
<b>Guztizkoa</b>	<b>3</b>	<b>48</b>	<b>51</b>



### ✓ Nafarroako Azpiegitura Berdearen Estrategia

Europako Batzordeak Europako Parlamentuari, Kontseiluari, Europako Ekonomia eta Gizarte Lantaldeari eta Eskualdeetako Lantaldeari 2013an egindako Komunikazioaren esparruan sortu zen Azpiegitura Berdea. Komunikazio horretan, Europak Azpiegitura Berdearen oinarriak ezarri zituen. Ekimen horren helburua da NATURAK EMATEN DITUEN ONURAK AITORTZEA ETA BALIOESTEIA, gizarteak onura horien (elikagaiak, materialak, ur garbia, aire garbia, klimaren erregulazioa, uholdeak prebenitzea, polinizazioa eta aisialdirako lekuak) beharra duelako. Onura horiei ZERBITZU EKOSISTEMIKOAK deritze, eta batzuetan mugarik gabeak balira bezala erabiltzen dira eta haien balioa eta hauskortasuna aintzat hartu gabe tratatzen dira. Asmoa da PLANGINTZA ETA KUDEAKETA egoki eta jasangarri baten bidez lurraldeko elementu eta espazio guztiek haietatik espero diren funtzioak betetzea.

Azpiegitura Berdeak dituen ahalmenak direla-eta, EBk Europako garapen jasangarria eta eskualde-politika lurralde-escala guztietan gidatzeko tresna garrantzitsu gisa onartu du, Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen Komunikazioari buruzko Irizpenean (DOCE 2014/C 67/31) adierazten den bezala, eta haren erabilera Europa 2020 Hazkunde Estrategiaren esparruan kokatu du. Testuinguru horretan, lurraren okupazioarekin lotutako zerbitzu ekosistemikoen galera murrizteko eta ekosistemen funtzioak leheneratzeko, Azpiegitura Berdea Europar Batasuneko politikan sartzea bultzatu da; hau da, plangintza egiteko eta erabakiak hartzeko prozesu guztietan. Horretarako, gaingitu egin behar da babesgunearen edo korridore ekologikoaren kontzeptua, eta kontuan izan behar da lurraldeak bioaniztasunarekiko, arriskuekiko, klima-aldaketarekiko, osasunarekiko, ekonomiarekiko, aisialdiarekiko eta abarreko dituen askotariko funtzioak.

Azpiegitura Berdearen Estrategia Nafarroan indarrean dauden lurraldea ordenatzeko tresnetan definitutako etorkizuneko lurralde-garapenaren eredian oinarritzen da. Estrategia horretan, Nafarroako Azpiegitura Berdea diseinatzen da; horrez gain, eskala eta sektore guztietako proiektuetan eta plangintzetan sartu behar diren helburuak eta irizpideak definitzen dira, eta estrategia garatzeko eta zehazteko ekintza-lerroak identifikatzen dira.

“Tbilbide-orri” bat edo ekintza-plan bat da Nafarroako Gobernuarentzat, nahiz eta Nafarroan Azpiegitura Berdea behar bezala garatzeko herritarren inplikazioa ere beharrezkoa den, administrazioen eta tokiko eragileen inplikazioaz gain.

Etorkizunari begira, Nafarroako Azpiegitura Berdearen Estrategian etorkizuneko Estatuko Azpiegitura Berdearen Estrategiatik edo aplikagarri zaion berariazko arauditik eratorritako moldaketak, baleude, egin beharko dira, bai eta Komunitateko estrategiaren helburuak behar bezala ezartzen eta interpretatzen laguntzeko egokitzat jotzen diren eguneratzeak eta eduki-gehiketak ere.

Nafarroako Azpiegitura Berdearen Estrategia alde aurreko "Azpiegitura Berdearen Lurralde Plangintzaren Dokumentua" lanean oinarrituta garatu zen; azken dokumentu hori, bestalde, partaidetza bidez egin zen 2018an.

Azpiegitura Berdearen Estrategiaren proposamena egin ondoren, 2019ko apirilean jardunaldi bat egin zen Iruñean, parte-hartzea sustatzeko eta 2018an egindako prozesuaren itzulera gisa. Jardunaldi horretara 35 pertsona joan ziren.

Nafarroako Gobernuaren Gobernu Irekiaren Atarian jendaurrean jartzeko aldiari, 15 ekarpen jaso ziren.

Esteka: <https://gobiernoabierto.navarra.es/es/participacion/procesos/estrategia-infraestructura-verde-navarra>

### ✓ **Nafarroako Baso Agenda**

Nafarroako baso-politika eta haren plangintzarako tresnak estrategikoki eguneratu beharri erantzuna emateko sortu zen Nafarroako Baso Agenda. 20 urte baino gehiago pasatu dira 1998an Nafarroako Oihan Plana onetsi zenetik, eta urte horietan aldaketa sakonak izan dira gizartean eta ingurumenean, erronka berriak eta arazo globalak agertu dira, baita kontzeptu eta ezaupide berriak ere. Nafarroako Baso Agenda Nafarroako etorkizuneko baso-estrategiaren oinarriak eta Nafarroako baso-politikaren eguneratzea jasotzen dituen dokumentua da.

Dokumentua idatzi zenean, haren helburuetako bat partaidetza-prozesu baten bidez egitea zen, basogintza-sektoreari, bereziki, eta Nafarroako gizarteari, oro har, aukera bat eskaintzeko, eta gure mendiek dituzten beharrei eta ematen dituzten aukerei buruz gogoeta egiteko eta eztabaidatzeko. Prozesuak fase hauek izan ditu:

- Diagnostiko-dokumentuak aurretiaz prestatzea. Lehen fasean –2017tik 2018ra egin zen–, erreferentziazko eta diagnostikoko dokumentuak prestatu ziren. 8 agiri dira osotara, Nafarroako zenbait agentek prestatuak, Nafarroako Gobernu Ingurune Naturalaren Zerbitzuaren koordinaziopean, Nafarroako basogintza-sektorearen abiapuntuko egoera aztertzeko.
- Nafarroako Baso Agendako dokumentuak idaztea. Alde aurreko diagnostiko-dokumentuetan oinarrituta, 2019. urtean Nafarroako Baso Agenda osatzen duten dokumentuen zirriborroak idatzi ziren:
  1. Nafarroako Baso Agendaren erreferentzia-esparrua
  2. Laneko proposamenak.

- Partaidetza-prozesua, proposamenak egiteko. Nafarroako Baso Agenda Landa Garapenerako, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Departamentuko kontseilariak aurkeztu zuen 2019ko martxoaren 15eko Basogintzako Aholkularitza Kontseiluan. Saioan, dokumentuaren nondik norakoak azaldu, eta USBak banatu ziren dokumentu guztiakin, Basogintzako Aholkularitza Batzordeko kideek egokiak iruditzen zitzaizkien ekarpenak egin zitzaizten. 2019ko martxoaren 25ean, Baso Agendako dokumentu guztiak eta haren aurkezpena Nafarroako Gobernuaren Partaidetza Atarian zintzilikatu ziren, bai eta informaziorako jarri ere jendaurrean.
- Behin betiko dokumentua egitea eta Nafarroako Gobernuak Nafarroako Baso Agenda onartzea.

Jendaurreko informazio-aldian, Gobernu Irekiaren Atariaren bidez 146 ekarpen jaso ziren, balorazio hauekin:

VALORACIÓN	Nº
YA INCLUIDO PREVIAMENTE (TOTAL O PARCIALMENTE)	55
INCORPORACION	44
INCORPORADA EN PARTE	18
NO INCORPORADO	19
NO PERTINENTE	10
<b>TOTAL</b>	<b>146</b>

Esteka: <https://gobiernoabierto.navarra.es/es/participacion/procesos/agenda-forestal-navarra-2019-2023>

### ✓ 2030eko Nafarroako Uraren Esparru Integratuaren Estrategia

Nafarroako Gobernuak, Landa Garapenerako, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Departamentuaren bidez, 2005eko Uraren Kudeaketa eta Erabilera Iraunkorrerako Estrategia berrikustea erabaki zuen. Arrazoi hauek zirela medio erabaki zen 2030eko Nafarroako Uraren Esparru Integratuaren Estrategia bat egitea:

- Dokumentu bat edukitzea, non elementu hauek ezartzen diren: epe luzeko ikuspegia, lehenetsiak eta helburu komunak uraren erabileren planetarako eta baliabide-kudeaketa eskatzen duten jarduketetarako.
- Dokumentu bat edukitzea, non honako hauek jaso, modu positiboan bultzatu eta kudeatzen diren: Nafarroako uraren erabileren arteko konexioak –loturak–; uraren erabileren plangintza egiten duten eta uraren zerbitzuak eta kalitatea kudeatzen dituzten eragileen arteko loturak; lurrazaleko uren eta lurpekoen arteko loturak; bioaniztasunaren eta uren egoera onaren arteko loturak; kantitatearen eta kalitatearen arteko loturak, eta ura kutsatzen dutenen eta erabiltzen dutenen artekoak.
- Existitzen diren planen eta jarduketan, partaidetza-esperientzien eta Nafarroaren partaidetza izan duten Europako proiektuetako emaitzen esparru integratzailea sortzea.
- Ekonomia zirkularren, klima-aldaketaren aurkako borrokaren eta garapen jasangarrirako helburuen printzipioak txertatzea.
- Uraren Esparru Zuzentzarauaren eta “uraren kultura berria” deritzonaren postuluak jasotzea.
- Mugapeko plan hidrologikoetan ezarritako helburuak kontuan hartzea eta horiei erantzutea, azpiarroetan.
- Gizarteko sektoreekin kontsulta-prozesu bat egiteko oinarri izatea.

Jendaurrean jartzeko aldi 3 proposamen jaso ziren alegazio gisa; eduki zabala zuten, eta lantzeko gai ugari. Estrategia ez da itxiztat jo, eta hurrengo hiletan, Kantauriko eta Ebroko

Konfederazio Hidrografikoekin koordinatuta eta Plangintza Hidrologikoaren Gai Garrantzitsuen Eskemaren fasea onartzearen esparruan, parte-hartze prozesu bat garatuko da lurralde-tailerren bidez, hurrengo hamarkadako Nafarroako Uraren Estrategia hobeto definitu ahal izateko.

Amailerako itzulera-saio bat egin zen, eta 76 pertsona bertaratu ziren; horietatik 49 gizonak ziren, eta 27 emakumeak.

Esteka: <https://gobiernoabierto.navarra.es/es/participacion/procesos/estrategia-marco-integrada-del-agua-navarra-2030>

### ✓ **Nafarroan ekonomia zirkularra garatzeko agenda**

Ekonomia zirkularra garatzeko Nafarroako Gobernuaren politiken eta ekintzen dimentsioak eta aniztasunak plangintza- eta kudeaketa-esparru berri bat eskatzen du. Horren bidez, erakunde arduradunek trantsizioa bizkortzen ahalko dute, ekintzak garatzeko osotasunaren ikuspegia izaten ahalko dute, eta ekintza berriak identifikatzen ahalko dituzte, bai estatu- eta erkidego-mailako instrumentuetatik eratorriak, bai Nafarroako ekonomiak eta gizarteak eskaintzen dituzten aukeretatik ere.

Arrazoi horiek eraman gaituzte Nafarroan ekonomia zirkularra garatzeko agenda bat prestatzera, xede hauekin:

- Nafarroan ekonomia zirkularren gidalerroak jasotzea eta etorkizuneko ikuspegi bateratu bat ezartzea ekonomia zirkularerako trantsizioan ekintzak eta puntu fokalak garatzeko: hau da, Nafarroako Gobernuak jarraitu beharreko helburu eta ekintza-ildoak.
- Egituratzeta, biltzea eta lehenestea abian paratutako ekintzak, aukerak atzematea eta esku-hartzeen arteko sinergiak sustatzea.
- Ikuspegi estrategikoaren, emaitzen eta ikaskuntzen jarraipena antolatzea.
- Pedagogia egitea eta ikusgarritasuna ematea ekintzei eta ekonomia zirkularri bere osotasunean, eta xede-taldee jakinaraztea.

Ingurumenaren Zuzendaritza Nagusiko Ekonomia Zirkularren eta Uraren Zerbitzuak egin du agenda, Nafarroako ekonomia zirkularren politikan dagokion lidergoa hartuz.

Agenda hori prestatzeko aurrekarien artean dago Nafarroak H2020-SCREEN proiektuan parte hartzea Europako beste 17 eskualdeekin batera; oinarri hori abiapuntu hartuta eraiki da mota honetako estrategiak aztertze eta lantzeko metodologia.

Proiektua amaitu ondoren, egindako lanak indartzeari eta Ekonomia Zirkularren Nafarroako Agenda 2030 dokumentuari forma emateari ekin zitzaion. Agendaren zirriborroa 2018ko ekainetik abendura idatzi eta berrikusi zen, Gobernuko zenbait departamenturen ekarpenak eta eragile interesdunen taldearen ekarpenak oinarri hartuta.

Joan den urtarrilean Partaidetza Atarian jendaurrean jarri ondoren, 14 ekarpen jaso ziren; horietako 3 partzialki onartu ziren, eta gainerakoak, guztiz. Gainera, otsailean Administrazioari langileekin lan egin zen taldekako saiotan, bai eta eragile sozioekonomikoekin eta lurralde-eragileekin ere; parte-hartzaile horien % 45 emakumeak izan ziren, eta % 55 gizonak. Martxoan, S3ren Zuzendaritza Batzordeari aurkeztu zitzaion, eta, azkenean, agendaren behin betiko testua Nafarroako Gobernuaren 2019ko apirilaren 3ko Erabakiaren bidez onartu zen.

Bertaratu beharreko saioak:

FECHA	Nº PERSONAS	PARTICIPANTES	OBJETIVOS
04/02/2019	16	Personal técnico de la Administración, responsable de políticas relacionadas con la Economía Circular	· Consensuar y recoger aportaciones a las líneas y principales acciones de la Agenda
07/02/2019	32	Agentes socioeconómicos	· Consensuar y recoger aportaciones a las líneas y principales acciones de la Agenda · Lograr la implicación en la definición e implementación

Aipatzekoa da aldez aurreko parte-hartze fase bat egin zela agenda egiteko prozesuan, bai zirriborroa prestatzeko garaian, bai SCREEN proiektua ezartzeko garaian. Fase horretan hainbat bilera egin ziren eragile sozioekonomikoekin. SCREEN proiektuaren emaitzak erabili dira agendaren diagnostikoa egiteko abiapuntu gisa.

Esteka: <https://gobiernoabierto.navarra.es/eu/partaidetza/prozesuak/nafarroan-ekonomia-zirkularra-garatzeko-agenda>

## KULTURA, KIROL ETA GAZTERIA DEPARTAMENTUA

### ✓ “Kirol-baloreen” saria herri-bozketaz aukeratzea

Kirol-baloreen sariak urtero eman dira 1984tik aitzina, azken urtean jokatu diren lehiaketetan kirolarien eta kirol-entitateen lorpen eta jokabide azpimarragarriak aitortzeko. Sari horiek Foru Komunitateak lehiaketa-kiroletan ematen dituen sari garrantzitsuenak dira, eta herri-bozketaz aukeratzen dira Nafarroako Kirolaren Institutuko webgunean.

Esteka: <https://www.deportenavarra.es/eu/kirol-baloreen-sariaren-herri-bozketa>

### ✓ Partaidetza bidezko aurrekontuak

Partaidetza bidezko aurrekontuak partaidetza-tresna bat dira, eta herritarrei parte hartzeko aukera ematen diete, Gazteriaren Zuzendariordeak bultzatutako proiektu baten garapen-maila guztietan. Biztanle gazteen partaidetza sustatzeko asmoz, Foru Gobernuak, bigarren urtez jarraian, 30.000 euroko partida bat sartu du 2019ko aurrekontuetan, partaidetza bidez exekutatzeko hiru proiektutan.

Aurrekontu parte-hartzaile horien oinarritzko printzipioak Nafarroako Gobernuaren Gazteriaren II. Planaren printzipioetan oinarritzen dira, eta ezaugarri hauek izan nahi dituzte: prozesu plural, anitz, irisgarri eta berdinzaleak izatea, modu argi eta gardenean hedatzen direnak eta Nafarroako gazteen iritzia kontuan hartzen dituztenak.

Nafarroan erroldatuta dauden 14 urtetik 30era bitarteko gazteek aurkez ditzakete proposamenak, bai eta gazteekin lan egiten duten eta Foru Komunitatean erregistratuta dauden irabazi asmorik gabeko elkarteek edo entitateek ere. Aurkezten diren ekimenek berriak eta gazteen segmentu osoari irekiak izan behar dute, eta epe ertain eta luzean eragina izan segmentu horretan; horrez gain, ekimen horiek partaidetza, prestakuntza, kultura, berdintasuna, inklusioa, gazteriari buruzko ikerketa eta abar lantzen dituzten proiektuak izan behar dute; azkenik, izaera soziala izan, eta gazteei zuzenduta egon behar dute. Ez dira inbertsio-proposamenak (obrak) eta ondasunak eskuratzekoak onartzen. Hiru proiektuetako bakoitza gauzatzeko aurrekontuak ez du gainditu behar 9.500 euroko gehieneko zenbatekoa (BEZa barne), eta 6.000 eurotik beherakoa ere (BEZa barne) ez da onartzen. Gainera, proiektua proposatzen duten pertsonak edo entitateek haren kudeaketan parte hartzeko konpromisoa



hartu behar dute, proiektuaren jarraipen- eta ebaluazio-batzordearen kide izanda; batzorde horren ekintzak Nafarroako Gazteriaren Institutuak garatuko eta gauzatuko ditu. Proposamenak 2019ko abendua amaitu aurretik egin beharko dira.

Proiektu hauek hautatu dira 2019an:

➤ **Film interaktibo bat: identitate sexualak eta genero-identitateak**

Helburua da existitzen diren identitate sexualei eta genero-identitateei buruz hausnartzea eta identitate horiek ikusgarri bihurtzea eta ahalduz (LGTBI+ kolektiboan eta kolektibo transfeministan daudenak, bereziki), gazteen errealitateen, arazoen eta kezken argazki bat lortze aldera.

Zenbait tailer eta topaketa egingen dira, eta horietan, grabazio-taldearekin astebetetz beren bizitza partekatuko duten bost protagonistak hautatuko dira; hala, protagonistek beren errealitatea, eguneroko bizimodua, sentitzeko modua, eta mundua nahiz beren burua munduan ikusteko modua erakutsiko dituzte.

Filma bideo-tresna interaktibo baten bidez muntatuko da, ikusleek zenbait aukeraren artean hautatu ahal izan dezaten.

➤ **Nafarroan biziz**

16 urtetik 30era bitarteko lau gaztek Nafarroa osoan bidaiatzeko aukera izanen dute proposamen honetan. Astebetean zehar, Komunitateko bazter guztiak ezagutu ahal izanen dituzte, kamera batekin eta grabazio-ekipo batekin, Foru Komunitateko gazte guztiekin beren esperientzia partekatuko.

Gazteen arteko integrazioa lortzea da asmoa, aniztasun kulturalaren eta sozialaren bizipenen bidezko ikaskuntzaren bitartez. Gainera, parte-hartzaileen eta sare sozialetako (gazteenak eta Nafarroako Gazteriaren Institutuarenak) haien jarraitzaileen kultura aberastea espero du proposamenak, bai eta turismo jasangarria, aisialdi alternatiboa eta Nafarroako historia sustatzea ere.

➤ **Iruña: Artea eta Inprobisazioa**

Proiektu honek zenbait arlotako eta artetako gazteak batu nahi ditu, musika eta inprobisazioa zenbait artetan (argazkigintza, dantza, pintura, hiri-arteak, olerkia, etab.) nahasten dituen proposamen komun bat egitearen bidez. Proiektuaren amaieran performance bat egingen dute elkarrekin.

Esteka: <https://www.juventudnavarra.es/eu/aurrekontu-parte-hartzaileak>

## GARAPEN EKONOMIKO ETA ENPRESARIALEKO DEPARTAMENTUA

✓ **Nafarroako Nekazaritzako Elikagaien Kooperatibak Integratzeko Esparru Estrategikoa (2018-2020)**

Garapen Ekonomikoko Departamentua, Politika Ekonomikoko eta Enpresarialeko eta Laneko Zuzendaritza Nagusiaren bitartez, 2017an eta 2018an Nafarroako Nekazaritzako Elikagaien Kooperatibak Integratzeko Esparru Estrategikoa (2018-2022) prestatzen hasi zen.

Dokumentuaren zirriborroa egiteko, honako entitate hauek parte hartu zuten: Nafarroako Nekazaritzako Kooperatiben Batasunak, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak, INTIA sozietate publikoak eta Garapen Ekonomikoko Departamentuak berak.

Ekonomia Sozialaren Plan Integralak nekazaritzako elikagaien sektorean kooperatiben integrazioa sustatzeko marko estrategikoaren eguneratzea txertatzen zuen enpresen garapenerako ardatzean. Horren helburua, berriz, hau zen: «sektorearen lehiakortasuna hobetzea, ikuspegi transbertsal batetik eta askotariko laguntza-lerroak eskainiko dituzten zenbait departamenturen laguntzarekin, kontuan izanik Nafarroak estatu-mailan onartua dagoen autonomiaz gaindiko Lehenetsuneko Elkartze Erakunde bat duela».

Hain zuzen, kooperatiben integrazioaren funtsezko xedeetako bat nekazaritzako elikagaien kooperatiben tamaina handitzea da, balio-katearen orekan eragin ahal izateko. Estatu-mailan, helburua bera da. Gai honetan eragina duten oinarriko bi araudi daude: alde batetik, abuztuaren 2ko 13/2013 Legeak, nekazaritzako elikagaien kooperatiben eta beste elkartze-erakunde batzuen integrazioa sustatzeari buruzkoak, funtsean elkartze-erakundeen tamaina handitzera eta nekazari elkartekideen errentak hobetzera bideratutako xede-sorta bat lortzea du helburu, produktuen lehiakortasuna eta balorizazioa hobetzeko. Halaber, abuztuaren 2ko 12/2013 Legeak, Elikakatearen Funtzionamendua Hobetzeko Neurriei buruzkoak, elikakateko operadoreen arteko harremanak arautzen ditu, segurtasun juridikoa eta ekitatea bermatzen du harreman komertzialetan, eta hornidura-, salerosketa- eta integrazio-kontratuak erregulatzen ditu.

Ekonomia Sozialaren Plan Integraleko 3.3.3. ekintza (NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN KOOPERATIBAK INTEGRATZEA) Enpresen Garapenerako ildo estrategikoaren baitan kokatzen da, eta helburu nagusizat du kooperaziorako proiektuak eta enpresen arteko lankidetzak sustatzeko mekanismoak sortzea, sektoreko enpresa txiki eta ertainak sendotzeko eta hazteko estrategia gisa, bai eta nekazaritzako elikagaien sektoreko kooperatibak integratzeko estrategia gisa ere. Ekintza horretan adierazten denez, "Nekazaritzako Elikagaien Sektorean Kooperatiben Integrazioa Sustatzeko Marko Estrategikoa eguneratzean lan egiten da Landa Garapenerako Programaren 2014-2020 programazio-aldian (PDR 2014-2020). Horren helburua da sektorearen lehiakortasuna hobetzea, ikuspegi transbertsal batetik eta askotariko laguntza-lerroak eskainiko dituzten zenbait departamenturen laguntzarekin, kontuan izanik Nafarroak estatu-mailan onartua dagoen autonomiaz gaindiko Lehenetsuneko Elkartze Erakunde bat duela".

Jendaurrean jartzeko aldiak ez zen ekarpenik jaso, eta dokumentua 2019ko urtarrilaren 30eko Gobernu-bilkuran onartu zen.

Partaide kop.	Gizonak	Emakumeak	Guztizkoa
<b>Gobernuko departamentuak</b>	4	2	6
<b>Enpresa publikoak</b>	1	0	1
<b>Enpresa pribatuak</b>	0	1	1
<b>Beste kanpo-eragile batzuk</b>	1	0	1
<b>Guztizkoa</b>	6	3	9

Esteka: <https://gobiernoabierto.navarra.es/eu/participacion/procesos/marco-estrategico-para-integracion-cooperativas-agroalimentarias-navarra>

#### ✓ Turismo arloko Prestakuntza Plana

2019. urtean, Turismoa eta Merkataritza Antolatu eta Sustatzeko Zerbitzua prestakuntza-katalogo batean lan egiten aritu da, sektoreko profesionalen eta ikasleen espezializazioa

hobetzeko. Helburua, beraz, jarduera horretan aritzen diren langileen profesionalizazioa hobetzea da, hasierako prestakuntzaren eta prestakuntza iraunkorraren bitartez.

Prestakuntza Plana hurrengo lau urteetan (2019-2022) egonen da indarrean. Plana egiteko, turismo-arloko prestakuntzaren beharrak eta sektorearen egoera hartu dira abiapuntutzat lehen fasean; bigarren fasean, Planean txertatzeko prestakuntza-proposamenak jaso dira, eta hirugarrenean, ekintza bakoitzaren edukiak eta garapena jorratu dira, bai eta prestakuntza-zentroen eta lan-merkatuaren arteko lankidetzak-hitzarmenak ere, praktikak kudeatzeko.

Plana prestatzeko, Nafar Lansare/Nafarroako Enplegu Zerbitzuarekin eta Hezkuntza Departamentuarekin koordinatuta egin da lan. Prestakuntza-ekintzen edukian, berriz, kontuan hartu da Turismoaren Plan Estrategikoan ezarritakoa.

Gainera, lan-ildoak baliozkotzeko eginkizuna zuten bi lan-mahaitan azaldu da azterketa. Mahai horietan, Turismoko Zuzendaritza Nagusiak partzuergo eta garapen agentzietako, sektoreko enpresaburuaren elkarrekin eta Nafarroako udal nagusietako ordezkariak bildu ditu.

## HERRITARREKIKO ETA ERAKUNDEEKIKO HARREMANETAKO DEPARTAMENTUA

### ✓ Nafarroako Tokiko Erakundeetako Emakume Politikarien Foroa


Foro horretan politikan lan egiten ari diren emakumeek pairatzen dituzten oztopoak aztertu dira. Foroa Nafarroako Gobernuako Partaidetzarako Zerbitzuarekin batera sortu zen, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin koordinatuta, Nafarroako Gobernuaren Herritarren Arretarako eta Partaidetzarako Zerbitzuak bultzatutako Nafarroan Herritarren Parte-Hartzea Sustatzeko 2017-2019ko Planaren 2.6.2 neurriaren esparruan.

Foro hori abian jartzeko, udal-idazkariei eta talde politikoei bidali zitzaizen deialdia mezu elektroniko bidez, Foru Komunitatean alkate- edo zinegotzi-karguak zituzten emakumeei helarazteko. Hau izan zen egutegia:



Osoko bilkuran, politikan diharduten 43 emakumek parte hartu zuten.

Lurralde-saioetarako, ahalduntzeari eta lidergo berriei buruzko bi saio proposatu ziren lurralde bakoitzean (Erribera, Iruñea, Erdialdea). Erriberan nahikoa emakume politikaririk izena eman ez zuenez, eskualde horretan ez zen Foroa garatu. Tokiko politikan diharduten 35 emakumek parte hartu zuten, guztira, eta horietatik, 18 Iruñean egon ziren, eta 17 Garesen.




Esteka: <https://www.igualdadnavarra.es/es/foro-politicas>

### ✓ NOSOTRAS-EMAKUMEON ahalduzte feministaren programa

Foru Komunitateko hainbat lurraldetan deszentralizatutako programa ibiltari bat da, prestakuntza eta ahalduzte feministaren bidez emakumeen parte-hartzea handitzeko helburua duena. Pirinioetako eskualdeetan, Erriberan, Iruñean eta Iruñerrian garatu da.

Programa zabaltzeko eta abian jartzeko, elkarte-mugimenduari, berdintasun-eragileei, COMFINi eta beste eragile batzuei bidali zitzaien deialdia mezu elektronikoko bidez, eta programari eta izen-emateari buruzko informazioa zabaltzeko, berriz, Whatsapp erabili zen. 121 emakumek eman zuten izena: 50ek Iruñean eta Iruñerrian; 31k Pirinioetan, eta 40k Erriberan (37 emakume-elkartetako kideak ziren). Saiok:

- Osoko bilkura, urtarrilaren 28an, Iruñean: osoko bilkuran 80 emakumek parte hartu zuten. 23 Pirinioetako eskualdekoak ziren, 39 Iruñeko eskualdekoak, eta 18 Erriberakoak (ia 30 elkartetako kideak ziren).
- Lurralde-bilerak. Hiru bilera egin ziren:
  - Iruña: 21 emakume bilera bakoitzean, batez beste
  - Erribera: 13 emakume bilera bakoitzean, batez beste
  - Pirinioak: 20 emakume bilera bakoitzean, batez beste
- Osoko jardunaldia Iruñean egin zen: 100 emakumek eman zuten izena, eta 85 agertu ziren. Elkarte-mugimendukoak, Nafarroako Berdintasunerako Kontseilukoak eta Emakume Politikarien Forokoak ziren, modu pertsonalean bertaratu ziren emakumez gain. Honela banatuta zeuden:



Esteka: <https://www.igualdadnavarra.es/es/nosotras-emakume-on>

### ✓ **Nafarroako Berdintasunerako Kontseiluarekiko Programa**

“NAFARROAKO BERDINTASUN KONTSEILUTIK POLITIKA PUBLIKOETAN ERAGINA” programa Nafarroako Berdintasunerako Kontseiluarekin: prestakuntza-prozesuaren helburua Nafarroako Berdintasunerako Kontseilua osatzen dutenen ahalduzko pertsonala eta kolektiboa lortzea izan da, kontseilu horrek ordezkartza eta partaidetza politikoko guneen bultzatzaile gisa duen eginkizun garrantzitsuan sakonduz.

Ahalduzko feministan datza prestakuntza-prozesua, bai eta genero-ikuspegia duten lidergo berriak, lidergo feministak eta parte hartzeko modu berriak eraikitzean ere. Helburua da parte-hartzaileei politika publikoetan eragitea errazago egiteko tresnak ematea, eta horrek haien interesei eta beharrei erantzuten dieten proposamenak genero ikuspegiarekin lortzen laguntzea.

2019an zehar, 5 lan-saio egin ziren.

Esteka: <https://www.igualdadnavarra.es/es/capacitacion-y-empoderamiento-del-consejo-navarro-de-igualdad>

### ✓ **Indarkeriaren Biktimak diren Emakumeentzat Harrera Baliabideen Eredu Berriaren proposamen bat prestatzea**

Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren bitartez, lantalde bat sustatu du indarkeriaren biktima diren emakumeentzako harrera-baliabideetarako arreta-eredu berri bati buruz hausnartu, aztertu eta proposamen bat egiteko.

Gobernuak, 2017an, Nafarroan emakumeen aurkako indarkeriaren arloan dauden baliabide eta zerbitzuen lehen ebaluazioa egin zuen; ebaluazio horretan atera zuen ondorioetako bat izan zen baliabide mota horiek ebaluatzeko beharra zegoela arreta-eredu berri bat egiteko.

Honako hauek osatzen dute lantaldea: indarkeriaren biktima diren emakumeentzako baliabideen kudeaketan, esku-hartzean eta koordinazioan erantzukizuna duten profesionalak; emakumearen eta gizarteratzearen esparruaren kudeaketan eta esku-hartzean ezagutza eta esperientzia duten profesionalak; zenbait familia-testuingurutan –babesgabetasuna eta emakumearen aurkako indarkeria dutenetan– adingabeei arreta ematen espezializatutako profesionalak, eta generoaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren arloko espezializazioa duten esparru akademikoko profesionalak.

Lantaldea, Nafarroako Berdintasunerako Institutuak gidatuta eta laguntza teknikoaren babesarekin, ikerketa, azterketa eta gogoeta egiten hasi zen biktimek eta haien seme-alabek dituzten beharrei erantzuten dien baliabide-eredu baten funtsezko alderdiei buruz; eredu horrek, gainera, bat etorri behar zuen 14/2015 Foru Legearekin, Emakumeen Indarkeriari Kontra Egitekoarekin, eta haren Ekintza Planarekin.

Estatuko beste autonomia-erkidego batzuetan eredu berritzaileak ezagutzeko ere lan egin da; horretarako, 2019ko lehen seihilekoan hainbat baliabide bisitatu ziren Bartzelonan eta Asturiasko Malva Etxean. Taldeak proposamen adostu bat egin zuen harrera-baliabideen eredu berri baterako, honako funtsezko alderdi hauek jasotzen zituena: baliabidearen kokapena, eraikinaren ezaugarriak, erabilizaileak, baliabide motaren eta egonaldi-denboraren arabera behar diren plazen kopurua, arreta integralerako emandako zerbitzuen zorroa, profesionalak eta kudeaketa mota.

Proposamenaren prestaketa amaitu eta Nafarroako Berdintasunerako Institutuari eman aurretik, iritziak alderatzeko hiru saio egin ziren talde hauekin:

- 1) Gaiarekin zerikusia duten elkarrekin eta erakundeekin, eta funtsezko pertsonekin.
- 2) Indarkeriatik bizirik atera diren emakumeekin

## 3) Adingabeekin

1. Saioa elkarte-mugimenduarekin. Ebaluaziotik ateratakoa jasotzen zuen proposamen teorikoa aurkeztea zen helburua, eta proposamen hori eredu bihurtzea, gogoeta teknikoaren prozesua egin eta gaiari buruzko haien iritziak eta iradokizunak jaso ondoren.

2. Saioa indarkeriatik bizirik atera diren emakumeekin. Saioak bi helburu zituen: emakumeek harrera-baliabideetan izandako esperientzia kontatu ahal izatea, eta pentsatuta zeuden aldaketen berri haiei ematea, haien beharretara egokitzen ziren jakiteko. Adierazi zitzaizen saioan ematen zituzten iritziak eta informazioak anonimoak izanen zirela eta lantzen ari zen harrera-baliabideen eredu berriaren proposamena aberasteko soilik erabiliko zirela.

3. Saioa adingabeekin. Helburua zen adingabeek esatea zer-nolako esperientzia izan duten harrera-baliabideetan, eta guri jakinaraztea zer motatako baliabideak egotea nahi izanen zuketean han egon zirenean. Modu didaktikoan aurkeztu zitzaizkien prozesu parte-hartzailearen emaitzak.

2019ko ekainetik aitzina, lana amaituta eta Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren zuzendaritza-taldeari aurkeztuta zegoen, bai eta legealdi honetan berdintasun-alorren eskumenak dituen departamentuari ere; hau da, Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuari.

#### ✓ **Enpresa eta erakundeetan berdintasun-printzipioa ezartzeko proiektua**

2019. urtean, Enpresetan eta Erakundeetan Berdintasuna izateko Ibilbidea proiektua gauzatzen eta bukatzen jarraitu da. 2018an hasi zen proiektua, eta haren helburu nagusia metodologia arin bat prestatzea zen, enpresek inplikazio handiagoa izan dezaten emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-planak egitean. Azken emaitzari IGE 2.0 izena eman zitzaion; izan ere, bazegoen orain dela bi bosturteko egindako IGEren bertsio bat, harrezkero modu egokian funtzionatu duena.

Prestatze-prozeduran, inplikaturako eragileen bi partaidetza-txanda (apirilean eta urrian) nabarmendu ziren jardura azpimarragarrien artean; eragile horiek enpresa-elkarteak, sindikatuak, enpresak eta berdintasun-arloko aholkularitza-enpresak izan ziren, bereziki. Guztira, honako hauek parte hartu zuten partaidetza-prozesu horretan: enpresa-elkarteen 10 ordezkariak, 6 erakunde sindikalek, 15 enpresa eta irabazi asmorik gabeko entitatek, eta berdintasun-arloko 7 aholkularitza-enpresak.

Azken emaitzei dagokienez, berriz, lorpen hauek erdietsi zituzten: erakundeetan genero-berdintasunaren arloan jarduteko esparru kontzeptualari buruzko dokumentu bat; autodiagnostikorako prozedura laburtu bat; neurrien gida bat; negozioazio kolektiborako orientabideak, eta erakundeetan genero-berdintasuna aitortzeari eta saritzeari buruzko orientabideak dituen dokumentu bat.

## 1.2.Herritarren Arretarako eta Partaidetzarako Zerbitzuak egindako beste jarduketa batzuk

2019. urtean, Herritarren Partaidetzarako Atalak jarraian adierazten diren hartzaileei zuzendutako 92 jarduketa egin ditu:

Hartzaile mota	Ekintza mota (Hartzaile motaren arabera)
<b>Nafarroako Gobernuko departamentuak</b>	17
<b>Toki-erakundeak</b>	13
<b>Herritarren elkarteak eta GKEak</b>	5
<b>Lanbide-elkargoak</b>	5
<b>Enpresak</b>	26
<b>Unibertsitateak</b>	4
<b>Ikastetxeak</b>	1
<b>Enpresa publikoak</b>	2
<b>Bestelakoak</b>	19
<b>Oro har, guztira</b>	<b>92</b>

Jarraian, azpimarragarrietako batzuk adierazi dira.

### 1.2.1. Nafarroako Gobernuaren jarduketak

#### 1.2.1.1. Departamentuei emandako aholkularitza eta laguntza

Departamentuak, 2019. urtean, legegintzaldi honetarako aurreikusitako planak amaitzen joan dira, baina Herritarren Partaidetzarako Atalak haiei laguntza eta aholkularitza ematen jarraitu du, eta arduradunekin harremanetan jarri da honako gai hauei dagokienez: udal-plangintzan parte hartzeari buruzko jarraibideak (Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentua), etxebizitza-plan edo -programetan etorkizunean ezartzeko herritarren partaidetza-prozesuak (Etxebizitzen Ikuskaritza), Nafarroako Bizikidetzaren Plan Estrategikoa (Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusia), Gazteen parte-hartzeari buruzko gogoeta Nafarroan (Toki Administrazioa, Gazteriaren Zuzendariordetza) eta Adituen Mintegia (Nafarroako Enplegu Zerbitzua).

Departamentuekin partaidetza-arloko aholkularitza emateko egindako bilerak honela banatu dira:

Departamentua	Bilera eta aholkularitza kopurua
Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanak	2
Landa Garapena, Ingurumena eta Toki Administrazioa	3
Eskubide sozialak	1
Lurralde Kohesioa	1
Kultura, Kirola eta Gazteria	1
Bilerak, guztira	8

### 1.2.1.2. Gobernuaren kide anitzeko organoek herritarren parte-hartzearekin lotuta egindako ebaluazioan identifikatutako hobekuntza-neurrien ezarpenaren ebaluazioa

Herritarren Parte-hartzea Sustatzeko Planaren helburuen artean, kide anitzeko organoen ebaluazioa zegoen; beraz, aurreikusitako hobekuntzak zenbateraino abian jarri diren jakiteko (hobekuntza horiek 2016an egindako kide anitzeko organoen lehen ebaluaziotik sortu ziren), neurri horien emaitzekiko gogobetetze-maila ezagutzeko eta hurrengo legegintzaldietan abiarazi beharreko neurriei buruzko proposamenak jasotzeko. Ikerketa horren emaitza 2019ko martxoko txosten honetan adierazita geratu da: "Azken txostena: herritarren parte-hartzearekin lotutako Nafarroako Gobernu kide anitzeko organoen ebaluazioa".

Esteka: [https://gobiernoabierto.navarra.es/sites/default/files/informe\\_evaluacion\\_final\\_organos-colegiados\\_2019.pdf](https://gobiernoabierto.navarra.es/sites/default/files/informe_evaluacion_final_organos-colegiados_2019.pdf)

### 1.2.1.3. Gobernuko departamentuei zuzendutako prestakuntza- eta sentsibilizazio-ekintzak garatzea

Atal honetan bi ekintza egin ziren:

#### ✓ Partaidetzarako teknikak eta tresnak

Martxoan egin zen "Partaidetzarako teknikak eta tresnak" izeneko bigarren prestakuntza-ekintza, eta departamentuek proposatutako 17 pertsonak parte hartu zuten.

Ikastaroa kanpoko parte-hartze prozesuak gauzatu behar dituzten edo kontratatutako laguntza teknikoaren lana ikuskatu behar duten Administrazio langileentzat zen; ikastaroaren helburua, berriz, partaidetza-prozesu bat garatzeko oinarrizko metodoak eta tresnak ezagutzea. Eduki hauek zituen ikastaroak:

- Dinamika eta teknika ohikoenak aurrez aurreko partaidetza-prozesu baten faseetan.
- Onlineko tresna ohikoenak. Erabileraren arriskuak, abantailak eta desabantailak.
- Partaidetzarako aplikazio informatikoak, bai barnekoak (Administrazio elektronikoa: Intranet, plataforma partekatua, etab.), bai kanpokoak (inkestak eta inprimakiak, bideokonferentziak, dokumentazio partekatua, herritarren kontsultak, etab.).



✓ **Partaidetza ez da eskubide bat bakarrik**

Martxoan amaitu zen herritarren parte-hartzearen garrantziari buruzko sentsibilizazioa intranet bidez sustatzeko kanpaina, "Partaidetza ez da eskubide bat soilik" lelopean; Nafarroako Gobernuako Administrazio Nukleoarentzat zen, eta 691 irakurketa izan zituen.

Kanpaina horretan, herritarren parte-hartzeari buruzko informazioa eman zitzaion, eta partaidetzaren balioespina egin zen zenbait lekukotzaren, iritziren eta gure Komunitateko hainbat pertsona esanguratsuk aurkeztutako esperientzien bidez. Gainera, ataleko helbide elektronikora iritziak bidaltzeko aukera eman zen. Iritzia emateko 2 mezu elektronikoko jaso ziren.

**1.2.1.4. Gazteen parte-hartzearen azterketa Nafarroan**

Herritarren Partaidetzarako Atalak ikerketa bat egitea adostu zuen Gazteriaren Zuzendariordetzarekin batera, Nafarroako gazteen parte-hartzea sakontasunez aztertzeko. Horretarako, laguntza teknikoa kontratatu zen.

Azken urteetako Nafarroako gazteen parte-hartzeari buruzko datu-bilketari esker, bazegoen abiapuntuko egoeraren erradiografia bat, eta azken dokumentuaren esparru teorikoan adierazi da. Azterketak helburu hau zuen: Nafarroako gazteriaren partaidetza-politiketan erronka berriak proposatzen lagunduko zuten ondorioak ateratzea.

Abian jarri zen metodologiak 2 alderdi izan zituen: 20 elkarrizketa sakon Nafarroako gazteriaren arloarekin lotutako erreferenteei eta 3 lurralde-saio estrategiko; azken horietan, zegokion eskualdeetako gazteek parte hartu zuten.

20 elkarrizketak 14 emakumeri eta 6 gizoni egin zitzaizkien. Lurralde-saio estrategikoak leku hauetan egin ziren:

DATA	LEKUA
2019/04/03	Iruña - Nafarroako Gazteriaren Institutua
2019/05/05	Auritz (Kultur Etxea)
2019/05/12	Tutera (Rua Gizarte Etxea)

Saio horietan 20 gaztek parte hartu zuten, guztira (7 emakume, 6 gizon eta aurreko bi aukeretan identifikatu ez ziren beste 4 pertsona).

Prozesu guztitik azken dokumentu bat sortu zen, non adierazita dauden bai egindako ikerketa, bai gazteriarekin partaidetza-politiketan jarrai daitezkeen lerroak.

**1.2.1.5. Bilerak eta prestakuntza-ekintzak**

Prestakuntzari buruz egindako beste ekintza batzuk:

1. Otsailean, bilera bat egin zen Nafarroako Enplegu Zerbitzuarekin, pertsona adituen mintegi bat abian jartzeko Nafarroako Soziologia eta Politologia Elkargoarekin lankidetzan.
2. Beste bilera bat egin zen Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuarekin, partaidetzari buruzko onlineko prestakuntza martxan jartzeko Administrazio Publikoko langileentzat; prestakuntza hori 2020an garatuko da.

### 1.2.1.6. Jardunaldia

Martxoaren 26an jardunaldi bat antolatu zen Hezkuntza Departamentuan, izenburu honekin: "Haurren partaidetza gure gizartean". Jardunaldiaren helburuak, berriz, hauek ziren: haurren eta nerabeen partaidetzak gure gizartean duen garrantziaz gogoeta egitea eta eztabaidatzea; "Hautzarroaren Hiri Lagunak" programa eta Nafarroan duen presentzia zabaltzea, eta gure Komunitatean egin berri diren esperientzia pilotuen emaitzak aurkeztea, bai eta horietatik lortutako ikaskuntza nabarmenenak ere.

Jardunaldia honako hauentzat zen: Gobernuko eta toki-erakundeetako teknikarientzat, unibertsitateentzat, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarentzat, lanbide-elkargoentzat, ikastetxeentzat, aditu eta ikerlarientzat, profesionalentzat, GKEentzat, haurrentzako zerbitzuak ematen dituzten entitateentzat, gazteen elkarteentzat eta interesa zuen normahirentzat. Guztira, 85 pertsona bertaratu ziren.

### 1.2.2. Jarduketak toki-erakundeekin lankidetzan

#### 1.2.2.1. Herritarren parte-hartzeari buruzko bideoa

Toki-erakundeetako partaidetzari buruzko bideo bat ekoitzi zen urtarrilean. Helburutzat, berriz, hau izan zuen: herritarren parte-hartzeak politika eta zerbitzu publikoak planifikatzeko eta kudeatzeko duen garrantziari buruzko dibulgazio-material gisa balio izatea, aplikazio-esperientziak eta jardunbide egokiak garatzen lagundu dezan.

Bideoak *Nuestra opinión también cuenta/Gure iritzia ere garrantzitsua da* zuen izenburua.

Esteka: [https://www.youtube.com/watch?v=UHVVEuYRQ9U&list=PL-F1cu8QDMR2wbTA-IB6U0lnc-rCi\\_uMg&index=2&t=0s](https://www.youtube.com/watch?v=UHVVEuYRQ9U&list=PL-F1cu8QDMR2wbTA-IB6U0lnc-rCi_uMg&index=2&t=0s)

#### 1.2.2.2. Udal-proiektuetarako dirulaguntzak

56E/2018 FORU AGINDUAK, abuztuaren 30ekoak, Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilariak emanak, dirulaguntzen deialdi bat onetsi zuen, dirulaguntzak emateko toki-erakundeei, toki-ekintzako taldeei, garapenerako laguntzako GKEei, herritarren elkartei eta irabazi-asmorik gabeko beste entitate batzuei, 2019an Nafarroako Foru Komunitatean herritarren parte-hartzea bultzatzeko eta sustatzeko proiektuak garatu zituzten.

Ondoren, Lehendakaritzako eta Gobernu Irekiko zuzendari nagusiaren ebazpenaren bidez, dirulaguntza hauek eman zitzaizkien toki-erakundeei:

Toki-erakundea	Proiektua	Emandako dirulaguntza
<b>Ribaforadako Udala</b>	Herrian adinekoen egoitza baten beharrari buruzko iritziak jasotzea	2.757,85 €
<b>Berriobeitiko Udala</b>	Espazio publikoen diseinuari eta erabilereari buruzko partaidetza-prozesua	5.636,88 €

Toki-erakundea	Proiektua	Emandako dirulaguntza
<b>Eguesibarko Udala</b>	... sentitu, pentsatu, ekin. Ezagutu Eguesibar!	6.000,00 €
<b>Bakaikuko Udala</b>	Auzolanari buruzko ordenantza bat egitea Bakaikun	2.199,38 €
<b>Sakanako Mankomunitatea</b>	Mankomunitatearen Plan Estrategikoa: ibarraren gaur egungo egoerari eta etorkizunari buruzko gogoeta parte-hartzailea	10.000,00 €
<b>Atarrabiako Udala</b>	Agenda 21 eta haren Tokiko Ekintza Plana egiteko partaidetza-prozesua	5.076,32 €
	<b>Guztizkoa</b>	<b>31.670,43 €</b>

### 1.2.2.3. Esperientzia pilotuak

2019an, sektorearteko 2 esperientzia piloturekin jarraitu da, Nafarroan Herritarren Parte-Hartzea Sustatzeko 2017-2019ko Planaren 2.6.2 neurriaren esparruan: "Haurren, gazteen, emakumeen eta immigrazioaren arloko sektorearteko esperientzia pilotuak garatzea" da esperientzietako bat, eta beste bat hasi da esku-hartze komunitarioari buruz. Esperientzia horien amaieran, alor bakoitzeko partaidetza-gidak egin dira, eta hurrengo urtean argitaratuko dira.

Helburua honako hau izan da: gure Komunitateko gizarteko sektore garrantzitsuetan beste entitate batzuentzat erreferentzia izan daitezkeen partaidetza-esperientziak sustatzea. Esperientzia berritzaileak eta lankidetzakoak izan dira, eta zenbait entitate eta/edo kolektibo sozial inplikatu dituzte esperientzien plangintzan, garapen-kudeaketan eta ebaluazioan.

#### ✓ Kulturartekotasuna

2019ko apirilean, Herritarren Partaidetzarako Atalak "Tokiko partaidetza komunitarioa, bizikidetzaren eragile" jardunaldia antolatu zuen; ekitaldia Civicanen egin zen, eta bertan Nafarroako Gobernuak zenbait departamentutako ordezkariak parte hartu zuten, bai eta gizarte-entitateak eta migratzaileekin lotutako GKEek ere. Nafarroako zenbait eskualdetako migrazioarekin egindako partaidetza-esperientzia garrantzitsuak azaldu ziren, batez ere esperientzia pilotuan parte hartu zuten hiru udalenak: Erriberri, Tafalla eta Miranda Arga.

Esperientzian Eskubide Sozialetako Departamentuko Gizarteratzeko eta Gutxiengoei Arreta Emateko Atalak ere lagundu zuen.

Esperientzia pilotua garatzeko kontratatutako laguntza teknikoa arduratu da Kulturen arteko Partaidetza-gida egiteaz, eta hurrengo urtean argitaratuko da.

### ✓ **Haurtzaroa eta Nerabezaroa**

2019an 2 prestakuntza-saio egin ziren Eguesibarko eta Mendabiako udalekin, haurtzaroaren eta nerabezaroaren partaidetza-organoak osatzeko bi udalerrietan.

Hala, haurren eta nerabeen partaidetza-organoak sortzeko prozesua amaitutzat eman zen esperientzian parte hartu zuten udalerrietako bakoitzean.

Udallerri hauek parte hartu zuten: Eguesibar, Zizur Nagusia, Cintruénigo, Mendabia eta Castejón.

Haurren eta nerabeen partaidetzaren esperientzia hori Herritarren Partaidetzarako Atalak antolatu zuen, Nafarroako UNICEFekin lankidetzan, eta erreferentziatzat "Haurtzaroaren Hiri Lagunak" programa hartu zen.

Hauek ziren proiektuaren helburuak:

- Parte hartzen duten udalek haurren partaidetzarako organo bat diseinatu eta abian jar dezaten erraztea.
- Esperientzia horiek sistematizatzea, eta horietatik jasotako ezagutza Nafarroako beste udal batzuei transferitzea, gida praktikoa baten bidez.
- Udalen arteko sareak eta aliantzak ehuntzea.
- Udal horiek haurren eta nerabeen ongizateari egiten dioten ekarpena ikusgai egitea eta balioestea.

Bukatzeko, amaierako jardunaldi bat antolatu zen martxoan Hezkuntza Departamentuaren aretoan. Jardunaldi horretan udallerri bakoitzeko hurrek parte hartu zuten eta proiektuan inplikaturako udalen esperientziak azaldu ziren.

Esperientziaren amaieran, haurtzaroan eta nerabezaroan parte hartzeko gida bat egin zen, eta une honetan edizio- eta banaketa-fasean dago. Gida hori ere esperientzia pilotuan laguntza teknikoaz arduratu den enpresak egin du.

### ✓ **Esku-hartze komunitarioa**

Gida hau egiteko talde eragile bat osatzea erabaki zen, eta bertan honako hauek ordezkaturik egotea: Eskubide Sozialetako Departamentua, Osasun Departamentua, Hezkuntza Departamentua, Iruñeko Udala eta Nafarroako esku-hartze komunitarioa ordezkatzeko duten erakundeak. Deialdia esparru publikoari zein pribatuari zabaldu nahi izan zitzaion. Talde eragile hori 13 pertsonak osatu zuten, guztira.

Osasun Departamentua Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko (NOPLOI) prebentzio komunitarioaren arloko osasun-zerbitzuko teknikariek eta Eguesibarko (Sarriguren) Osasun Etxeko teknikariek ordezkatu zuten. Hezkuntza Departamentua Hezkuntza Antolamenduaren eta Aukera Berdintasunaren Zerbitzuak ordezkaturik egon zen. Iruñeko Udala, berriz, Gizarte Zerbitzuetako, Komunitate Ekintzako eta Kiroleko Alorrak (Haurtzaroa eta Familia Programa).

Eta beste erakunde hauek ere izan zuten ordezkariak: Nafarroako Gizarte Hezitzaileen Elkargo Ofiziala, Hezitzaile Eskola/Ikastetxe Integratua, Pauma S.L, Gurutze Gorria eta IBILI elkarteak (lehen Nafarroako Desgaitu Fisikoen Elkarteak zena).

Horretarako, laguntza teknikoa kontratatu zen, eta hura arduratu zen udaletako teknikariek eta talde eragileekin 4na lan-saio egiteaz, bai eta Parte-hartze eta Esku-hartze Komunitarioaren Gida egiteaz ere. Gida hori datorren urtean editatuko da.

#### 1.2.2.4. Jardunaldia: Herritarren parte-hartzearen oraina eta etorkizuna Nafarroako Toki Erakundeetan

Udal eta Kontzejuen Federazioarekin lankidetzan, martxoan jardunaldi bat egin zen Nafarroako toki-erakundeetako kargu publikoentzat eta teknikarientzat; tokiko garapen-agentzientzat; alderdi politikoentzat eta Parlamentuko taldeentzat; partaidetza-prozesuak errazten aritzen diren aholkularitza-enpresentzat, eta interesa zuten beste pertsona batzuentzat. Jardunaldiak helburu hau zuen: legealdi honetan herritarren tokiko parte-hartzean egindako aitzinamenduak aztertzea, bai eta egon daitezkeen hobekuntza-lerroak identifikatzea ere, hurrengo legealdian ezartzeko.

Jardunaldira 51 pertsona joan ziren: horietako 29 emakumeak ziren, eta 22, gizonak. Bertaratu ziren pertsonen % 62,75 toki-erakundeetakoak ziren, % 9,80 Nafarroako Gobernuakoak eta % 27,45 beste elkarte, enpresa eta entitate batzuetakoak.


#### 1.2.2.5. Prestakuntza-ekintzak

Esparru publikoan gero eta garrantzitsuagoa da prozesu eta tresna parte-hartzaileak nola diseinatu, planifikatu, kudeatu, ebaluatu eta abar jakitea. Halaber, jarduketa horiek abian jartzeak lurraldeko beste erakunde eta eragile batzuen lankidetzak eskatzen du.

Herritarren Arretarako eta Partaidetzarako Zerbitzua behar horren jakitun da eta, Udal eta Kontzejuen Federazioarekiko lankidetzaren esparruan 2016ko maiatzaren 20an sinatutako Praktika Onen Protokoloarekin lotuta, "Toki-erakundeetako kargu publikodunek eta teknikariek herritarren parte-hartzearen arloan dituzten prestakuntza-beharrak identifikatzea" izeneko ikerketa bat egin du. Ikerketa horren helburua, berriz, hau izan da: toki-erakundeetan lan egiten duten arduradun politikoek eta teknikariek partaidetzarekin lotuta dituzten prestakuntza-beharrak detektatzea, batez ere kulturaren, gizarte-zerbitzuen, haurtzararen eta gazteriaren, hirigintzaren eta berdintasun-politiken esparruan.

Ikerketa egiteko, toki-erakundeetako teknikarien eta politikarien talde esanguratsu batek parte hartu zuen.

Metodologiak eskema honi jarraitu zion:



#### 1.2.3. Jarduketak eskualdeko garapen-agentziekin

2019ko urtarrilean, herritarren parte-hartzeari buruzko hirugarren lurralde-jardunaldia egin zen Garesen. Jardunaldi hori, bestalde, herritarren parte-hartzeari buruz Eder partzuergoarekin, Cerderna/Garalurrekin, Erdialdea Garatzeko Partzuergoarekin eta Estellerriko TEDER

elkartearekin lankidetzan, Tuteran, Leitzaan eta Garesen egindako hiru lurralde-jardunaldietako bat zen. Helburu orokor hau zuten jardunaldiok: herritarren parte-hartzearekin lotuta Nafarroan ditugun aitzinamenduak eta erronka berriak partekatu ahal izatea aipatutako lurralde horietako bakoitzeko eragile instituzionalekin, ekonomikoekin eta sozialekin.

Era berean, jardunaldi horien bidez, lurralde-errealitate bakoitzetik gertu dauden partaidetza-erperientziak ezagutu eta trukatu nahi ziren, bai eta eskualde bakoitzean egindako aitzinamenduak balioetsi eta ezar daitezkeen hobekuntzak identifikatu ere.

Esteka: <https://docplayer.es/150381718-Avances-y-retos-en-la-participacion-ciudadana-a-nivel-local-documento-de-conclusiones.html>

### 1.2.3.1. Garesko lurralde-jardunaldia

Garesko jardunaldia TEDER elkartearekin eta Erdialdea Garatzeko Partzuergoarekin lankidetzan antolatu zen. 16 pertsona bertaratu ziren: 11 emakume eta 5 gizon.

Hauek izan ziren jardunaldi horren helburu zehatzak:

- Hausnarketa egitea herritarren parte-hartzeak erakundeen kudeaketa publikoan eta pribatuan duen garrantziaz.
- Nafarroako Erdialdeko eta Estellerriko zenbait udalek eta beste erakunde batzuek egindako esperientzia interesgarriak aurkeztea.
  - ✓ Lizarrako Udala: "Auzoetako kontseiluak"
  - ✓ Lodosako Udala: "Partaidetza bidezko aurrekontuak"
  - ✓ Artaxoako Udala: "Berdintasunerako plana"
  - ✓ Izarreibarko Mankomunitatea: "Herritarren Partaidetzarako Plan Estrategikoa"
  - ✓ Erdialdea Garatzeko Agentzia: "Erdialdea Garatzeko Estrategia"
  - ✓ TEDER elkarte: "Jasangarritasunari buruzko sormen-tailerrak Estellerrian"
  - ✓ Errezuko Ubagua Berpiztu Elkarte: "Ibaia babesteko programa"
  - ✓ Erdialdeko Enpresen Elkarte: "Erdialdearen Suspertze Sozioekonomikorako Plana"
- Ikustea zer proposamen bidera daitezkeen, toki- administrazioetan eta beste erakunde ekonomiko eta sozial batzuetan parte-hartzea sustatu eta hobetzeko.

## 1.2.4. Jarduketak GKEekin eta elkarteekin

### 1.2.4.1. Dirulaguntzak

56E/2018 FORU AGINDUAK, abuztuaren 30ekoak, Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilariak emanak, dirulaguntzen deialdi bat onetsi zuen, dirulaguntzak emateko toki-entitateei, toki-ekintzako taldeei, garapenerako laguntzako GKEei, herritarren elkartei eta irabazi-asmorik gabeko beste entitate batzuei, 2019an Nafarroako Foru Komunitatean herritarren parte-hartzea bultzatzeko eta sustatzeko proiektuak gara zitzaizten.

Ondoren, Komunikazioko eta Erakundeekiko Harremanetako zuzendari nagusiaren ebazpenaren bidez, dirulaguntza hauek eman zitzaizkien toki-entitateei:

Entitatea	Proiektua	Emandako dirulaguntza
<b>Koinequalitas Fundazioa</b>	Plan Estrategikoa	3.042,86 €
<b>ALAIZ Colectivo de Cultura Popular Elkarte</b>	Demokraziarako hezkuntza. Gizartean parte hartzeko tresnak	3.262,50 €
<b>Nafarroako Erriberan desgaitasuna duten pertsonen elkarte (AMIMET).</b>	2019-2022 Plan Estrategikoa	3.150,00 €
<b>Ibili Elkarte</b>	Plan Estrategikoa	3.000,00 €
<b>Alde Zaharreko Bizilagunen Elkarte</b>	AZ Ekimena: auzoko jardunaldiak	1.917,43 €
<b>Nafarroako Soziologia eta Politologia Elkargoa</b>	Herritarren Laborategi Soziala Sortzea	3.847,50 €
<b>Garuneko Kaltearen Nafarroako Elkarte</b>	Kalte zerebrala eta/edo neurologikoa duten pertsonen arreta emateko ereduaz informatzea, eta eredu hori baliozkotzea eta garatzea	3.240,75 €
	<b>Guztizkoa</b>	<b>21.461,04 €</b>

#### 1.2.4.2. Bilerak eta prestakuntza-ekintzak

2019. urtean bi prestakuntza-ekintza egin dira Nafarroako Foru Komunitateko hirugarren sektoreari begira:

- Anlisi eta diagnostiko eraginkorrak bideratzea
- Lankidetzan eta errekursibitatean oinarritutako zuzendaritza eta lidergoa taldeetan

##### ✓ **Analisi eta diagnostiko eraginkorrak bideratzea**

Gizarte-arazo bat identifikatzeko datuen, analisien eta tresnen metodologiak ezagutzea praktika ona da, eta kalitate-bermea ematen du proiektu sozialak diseinatzeko eta formulatzeko, eraginkortasunez eta efizientziaz gauzatzeko eta, azkenik, proiektu horien ebaluazio egokia eta zehatza jasotzeko.

Proiektuak diseinatu aurreko analisi eta diagnostikoa egiteko gaitasun teknikoa hobetzea zuen helburutzat ikastaroak, bai eta proiektu sozial baten oinarrian egoten den egoera sozioekonomikoari buruzko informazio-iturri nagusi fidagarriak ezagutzea ere.

Metodologia hau erabili zen:

- *Learning by doing* metodologiak, *Design Thinking* delakoan oinarritutako metodo-ikuspegiarekin.
- *Coaching* exekutiboaren metodologia.
- *E-learning* ikaskuntza-metodologiak, orientazioa, dinamizazioa, tutoretza eta ebaluazioa dutenak.

## 1.2.5. Jarduketak partaidetza-prozesuak egiteko aukera ematen duten enpresekin

### 1.2.5.1. Bistaratzea errazteko ikastaroa

Bistaratze grafikoari buruzko ikastaro bat antolatu zen martxoan partaidetza-prozesuak sustatzen dituzten pertsonentzat. Hainbat esparrutako 23 pertsonak parte hartu zuten: 18 emakumek eta 5 gizonak.

Hauek izan ziren ikastaroaren helburuak:

- Erraztasun grafikoaren oinarriko eta funtsezko elementuak ezagutzea.
- Errazago ikusteko laguntza erabiltzea partaidetza-tresna gisa, sistema bat mapatzeko nahiz helburuak, erronkak, interes-taldeak, aukerak eta soluzioak identifikatzeko ikusizko txantiloak erabiliz.
- Norberaren ikusizko tresnak sortzen ikastea, prestakuntza jasotzen duen pertsona dagoen testuingurura egokituz (hezkuntzako, antolakuntzako, ikerketako edo komunikazioko), hurbiltze sistemiko baten bidez.
- Bilera bat edo ekitaldi bat bisualki egituratzea, taldearen parte-hartzea sustatzeko, taldearen beraren ahalmenean oinarrituta eta haren aniztasunaren bidez.

### 1.2.5.2. Prestakuntza-beharren azterketa

Otsailean, bilera bat egin zen Nafarroako Enplegu Zerbitzuarekin, pertsona adituen mintegi bat abian jartzeko Nafarroako Soziologia eta Politologia Elkargoarekin lankidetzan.

## 1.2.6. Jarduketak Nafarroako Soziologia eta Politologia Elkargoarekin

### 1.2.6.1. Administrazio Publikoek sustatutako herritarren parte-hartzearen egoeraren ebaluazioa Nafarroan

“Herritarren parte-hartzearen sustapen publikoa ebaluatzea, etorkizuneko erronkak proiektatzeko” analisi baten emaitza da. Ikerketa horretan, Nafarroako administrazio publikoek herritarren parte-hartzea nola kudeatu duten aztertzen da.

Nafarroako Soziologia eta Politologia Elkargoari eskatu zitzaion azterketa hori egiteko, eta elkargo horrek kanpoko eragile independenteen laguntza ere izan zuen ikerketarako.

Landa-lana otsailetik apirilera egin zen, eta hiru alderdiri begiratu zitzaion: alderdi analitikoari, baloraziozkoari eta aginduzkoari. Hau da, 300 pertsonari baino gehiagori egin zitzaizkien inkestak, elkarrizketa sakonak egin ziren, 6 lantalde antolatu zituzten, gutxienez, eta literatura grisa esaten zaion hura aztertu zen; hots, legegaldian sortutako ikerketen, argitalpenen, jardunaldien, prozesuen eta abarren dokumentu guztiak.

Azterlanaren objektua herritarren partaidetza-prozesuen arduradunak ez ezik (hau da, parte-hartzearen sustatzaile publikoak), prozesu horietan parte hartzen zuten pertsonak eta kide anitzeko organoetako kideak ere izan ziren.

Ikerketaren emaitza eta erabilitako tresna horietako bakoitza esteka honetan deskarga daitezke: <https://gobiernoabierto.navarra.es/eu/gobernantza/planak-eta-programak-gobernu-eraginak/nafarroan-herritarren-parte-hartzea-sustatzeko>



Ikerketa horren dibulgazioa egiteko dago oraindik, eta 2020. urtearen hasieran egingen da.

Jarraian, egindako eztabaida-taldeen emaitzak daude ikusgai. 5 lurralde-jardunaldi egin ziren, eta honako hauek parte hartu zuten: Toki-erakundeek, enpresa publikoek, funtzionarioek, kide anitzeko organoetako idazkariak, enpresa-erakundeek, gizarte-erakundeek, GKEek eta sindikatuek.

<b>DATAK</b>	<b>TALDEAK</b>	<b>PARTE-HARTZAILE KOPURUA</b>	<b>Gizonak</b>	<b>Emakumeak</b>
2019/03/01	Toki-erakundeak	6	3	3
2019/03/05	Administrazio publikoetako langileak	20	10	10
2019/03/07	Enpresak	14	10	4
2019/03/14	Hirugarren sektorea eta herritarrak	6	3	3
2019/03/27	Hirugarren sektorea eta herritarrak	5	3	2
2019/04/28	Hirugarren sektorea eta herritarrak	-	-	-
<b>GUZTIRA</b>		<b>51</b>	<b>29</b>	<b>22</b>

### 1.2.7. Beste administrazio batzuekiko harremanak

#### 1.2.7.1. Herritarren Partaidetzarako Sare Autonomikoaren topaketetan parte hartzea

Herritarren Partaidetzarako Sare Autonomikoa Zaragozan sortu zen 2016ko apirilean, informazioa trukatzeko, ahaleginak koordinatzeko eta herritarren partaidetzaren arloko zenbait proiektu partekatze. Topaketa horren ondorioz gutun bat sinatu zen, autonomia-erkidegoetan herritarren parte-hartzea sustatzeko. Gutun horren edukia esteka honetan dago ikusgai: <https://gobiernoabierto.navarra.es/eu/gobernantza/gobernu-irekiaren-zabalkundea>

Harrezkero, urtero egin dira bilerak zenbait erkidegotan. Hain zuzen, Nafarroa izan zen Sarearen anfitrioi 2017ko urrian.

2019an, sare horren VII. eta VIII. topaketak egin dira. Lehena Toledon egin zen otsailaren 27an eta 28an, Gaztela-Mantxako Gobernuak antolatuta, eta azkena, Gasteizen, urriaren 17an eta 18an, Eusko Jaurlaritzak antolatuta. Nafarroako Gobernuak Gobernu Irekiaren eta Herritarrentzako Arretaren Zerbitzuak bi topaketetan parte hartu zuen. Gainera, Sarearen bilera guztien zerrenda bat dago ikusgai aurrez adierazi dugun estekan.

## 1.2.8. Parte-hartzearen gainerako sentsibilizazioa eta sustapena bultzatzeko beste jarduketa batzuk

### 1.2.8.1. Parte-hartzeari erreferentzia egiten dion “Lau aulki hirurendako” antzelana

Nafarroako Gobernuaren Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuko Herritarren Arretarako eta Partaidetzarako Zerbitzuak ekoitzi du antzelana, Nafarroan Herritarren Parte-hartzea Sustatzeko 2017-2019ko Planaren esparruan, partaidetzaren garrantziaren eta balioaren berri zabaltzeko xedez.

Antzezanaren helburua da plazaratzea zer arazo eta onura dituen herritarren partaidetzak arazo publikoak konpontzerakoan, tonu ez-serio batetik abiatuz eta hausnarketarako eta eztabaidarako mami ugaria eskainiz. Bilbea askatzeko ezinbestekoa izanen da beti kontuan hartzen ez diren pertsona horien ekarpenak balioestea.

Pertsona hauek osatzen dute talde teknikoa:

**Antzezleak:** Maitane Goñi Hernández; Jaione Urtasun Izal eta Xabier Flamarique Catalá

**Zuzendaria:** Óscar Orzaiz Resano

**Testua:** Luis Tarrafeta Sayas

Antzezanaren emanaldiak udalerrri hauetan egin dira:

Udalerrria	Data
Larraintzar	2019/01/18
Tafalla	2019/03/09
Beire	2019/03/16
Hiriberri (Arakil)	2019/03/22
Iruña (NUP)	2019/04/03
Iruña (CIVICAN)	2019/04/09
Tutera	2019/04/10
Burlata	2019/04/11
Bargota	2019/04/13
Artaxoa	2019/04/26
Lizoainibar	2019/04/27
Noain	2019/05/16
Funes	2019/05/29
Iruña (Gurbindo Etxea)	2019/06/28
Cascante	2019/11/09

### 1.2.9. Beste erakunde batzuek antolatutako ekitaldietara joatea

Herritarren Partaidetzarako Atalak beste erakunde batzuek antolatutako ekitaldi hauetan parte hartu du:

Data	Ekintzaren izena	Antolatzailea
2019/01/15	Emakumeen parte-hartze politikoari buruzko foroa	Nafarroako Berdintasunerako Institutua
2019/02/27	Partaidetzaren Sare Autonomikoaren 7. topaketa	Gaztela-Mantxako Gobernua
2019/04/03	Ikasleen parte-hartzeari buruzko jardunaldia	NUP
2019/05/08	Haurtzaroan parte-hartzeari buruzko jardunaldia	Iruñeko Udala
2019/10/17	Partaidetzaren Sare Autonomikoaren 8. Topaketa (Gasteiz)	Eusko Jaurlaritza
2019/11/14	Gazteriaren Golardoan Batzorde Aholkularian parte hartzea	Nafarroako Gobernuko Gazteriaren Zuzendariorde

### 1.2.10. Komunikazio-ekintzak

#### 1.2.10.1. Prentsa-oharrak

- Nafarroako toki-erakundeetan emakume politikariek duten presentzia aztertuko dute Foro batean - ostirala, 2019ko urtarrilaren 11  
[https://www.navarra.es/home\\_eu/Actualidad/Sala+de+prensa/Noticias/2019/01/11/Presentacion+Foro+mujeres+en+politica+local.htm](https://www.navarra.es/home_eu/Actualidad/Sala+de+prensa/Noticias/2019/01/11/Presentacion+Foro+mujeres+en+politica+local.htm)
- Ollo kontseilariak harrera egin die haur eta nerabeen parte-hartzea sustatzeko programa pilotu batean parte hartzen ari diren sei udalerriri - osteguna, 2019ko otsailaren 28a  
[http://www.navarra.es/home\\_eu/Actualidad/Sala+de+prensa/Noticias/2019/02/28/Consjera+Ollo+recibe+ayuntamientos+participantes+en+participacion+infantil.htm](http://www.navarra.es/home_eu/Actualidad/Sala+de+prensa/Noticias/2019/02/28/Consjera+Ollo+recibe+ayuntamientos+participantes+en+participacion+infantil.htm)
- Herritarren parte-hartzea agenda politikoan sartu da eta eraginkorragoa da tokiko esparruan - astelehena, 2019ko martxoaren 4a  
[https://www.navarra.es/home\\_es/Actualidad/Sala+de+prensa/Noticias/2019/03/04/Jornada+sobre+la+participacion+en+la+administracion+local.htm](https://www.navarra.es/home_es/Actualidad/Sala+de+prensa/Noticias/2019/03/04/Jornada+sobre+la+participacion+en+la+administracion+local.htm)

- Haurren eta nerabeen parte-hartzearen garrantziaz gogoeta eginen da jardunaldi batean - ostirala, 2019ko martxoaren 22a

[https://www.navarra.es/home\\_es/Actualidad/Sala+de+prensa/Noticias/2019/03/22/jornada+participacion+infantil+adolescente+Navarra.htm](https://www.navarra.es/home_es/Actualidad/Sala+de+prensa/Noticias/2019/03/22/jornada+participacion+infantil+adolescente+Navarra.htm)

---

- Jardunaldia tokiko partaidetzari buruz, bizikidetzaren baliabide gisa. Ekitaldia astearte honetan eginen da Civicanen eta bertan parte-hartzeari eta kultur-aniztasunari buruzko proiektuak aurkeztuko dira, bai eta tokiko esperientziak ere - 2019/04/05

<https://www.navarra.es/eu/albisteak/2019/04/05/jardunaldia-tokiko-partaidetzari-buruz-bizikidetzaren-baliabide-gisa>

---

- Herritarren parte hartzea sustatzeko 13 entitate eta elkarten Gobernuen laguntzak jaso dituzte. Tokiko sei erakunde eta zazpi elkarten 53.000 euro banatuko dituzte 2019ko proiektuak diruz laguntzeko - 2019/12/20

<https://www.navarra.es/eu/albisteak/2019/12/20/herritarren-parte-hartzea-sustatzeko-13-entitate-eta-elkarrekin-gobernuen-laguntzak-jaso-dituzte>

### 1.2.11. Herritarren Arretarako eta Partaidetzarako Zerbitzuak herritarren parte-hartzea bultzatzera bideratutako aurrekontua

2019an, zerbitzu horren gastuen aurrekontua herritarren partaidetzan 161.710,29 eurokoa izan da, honela banatuta:

Kontzeptua	Zenbatekoa
Jardunaldiak antolatzea	3.038,91 €
Udalerrietako esperientzia pilotuak	276,37 €
Prestakuntza eta sentsibilizazioa	19.658,44 €
Gida teknikoak egitea eta editatzea	29.832,76 €
Herritarren Partaidetzarako Sare Autonomikoa	107,04 €
Partaidetza Araudirako laguntza teknikoa	18.089,50 €
